

## Kolon minbiziari aurre egiteko kanpaina

50 eta 69 urte arteko 6.398 sakandar deituta / 2-3



**Altsasuko sexu erasoaren epaiarekin batera hedabideen tratamenduaren inguruko salaketa** / 8-9



**Urbasako Igoeran 105 parte-hartzaile neurtuko dira larunbatean, 13:30etik aurrera** / 17

**Turismo jasangarriari buruzko jardunaldiak antolatu ditu garapen agentziak Aralarko santutegian** / 5

**Sakanako arte garaikideko sortzaileen lanak Arte Azokan ikusgai izanen dira gaurtik** / 23

**Onddo lasterketa ez lehiakorraren 10. edizioa, Altsasuko hariztiak ezagutzeko gonbidapena** / 15

**Altsasuko feriak: azienda, peñak, kirola, artea, musika eta ongi pasatzeko osagai guztiak** / 13



## Altsasu aldatu duen urtea

Bihar urtea beteko da liskarra izan zela / 7



# Kolon minbiziari aurre egiteko kanpaina gurean

Osasunbidearen kolon eta ondesteko minbizia garaiz detektatzeko programak 50 eta 69 urte arteko 6.398 sakandarri programan parte hartzeko gonbidapena bidaltzen hasi zitzaizkien iraila akaberan eta hala segituko dute azaroan sartu arte

## SAKANA

Minbizi hori heste lodian edo ondestean agertzen den tumore gaiztoa da, polipo izeneko lesio batetik datorrena. Koloneko minbiziak ez ditu sintomak izaten hasierako faseetan, baina kakan odola egotea, heste-ohituretan aldaketak egotea eta arrazoi ezagunik gabe pisua galtzea esumoak izateko sintomak dira.

Herrialde garatuetan osasun arazo larrienetako bat da kolon eta ondesteko minbizia, eragin eta heriotza-tasa handia duela. Nafarroan sarrien diagnostikatutako tumorea da, minbiziagatik emakumezkoetan heriotza gehien sortzen duen lehen arrazoa izanik eta bigarrena, gizonezkoetan.

Haren tratamendu eta sendatzea errazagoa da garaiz detektatzen bada, eta goiz diagnostikatzen denean, % 90 sendatzen da. Aldiz, aurreratutako faseetan diagnostikatzen bada, bizirau-pena % 50era murrizten da.

Gaitza garaiz detektatzearen garrantziaz jabetuta, Osasunbideak programa martxan jarri zuen eta osasun arduradunek dioten moduan, "test bat aski izan daieke zure bizia salbatzeko". Minbizia garaiz aurkituta tratamenduak ere ez dira hain



Irurtzungo osasun etxera sartzean. ARTXIBOIA

gogorak eta bizi kalitatea majo hobetzen da. Horregatik, hainbat erakunde prebentzio programak indarrean jartzea aholkatu dute.

## Nafarroan

Osasunbideak 2013ko azaroan jarri zuen martxan programa, tumore horren eragina eta heriotza-tasa txikitzeko asmoz. Orduetik, urtetik urtera, osasun eskualdeak batzen joan dira, Sakanakoak azkenak izanik. 50 eta 69 urte arteko nafar guztiei zuzendutako kanpaina da, Osasunbideaz aparte bestelako osasun aseguru bat edo mediku

partikularra izanda ere pertsona horiendako ez du inolako kosturik izanen. Badira faktore genetikokoak dituztelako edo arrisku handia dutelako berez kontrol programa berezietan daudenak.

Osasunbideak 6.398 sakandarreri programan parte hartzeko gonbidapena bidaliko die, Sakanako populazioaren % 31,58ri hain zuzen ere. Gonbidapena 3.423 gizonezko (% 53,5) eta 2.975 emakumezko (% 46,49) jasoko dute.

Irailaren 27an hasi ziren programan parte hartzeko gonbidapenak bidaltzen Etxarri Ara-

nazko osasun eskualdeko 1.700 pertsonari eta hala egin dute asteazkenean arte (898 gizonezko eta 802 emakumezko).

Altsasuko osasun eskualdeetako 2.640 pertsonak (1.384 gizonezko eta 1.256 emakumezko) lastailaren 18aren eta azaroaren 8aren artean jasoko dute gonbidapena

Eta, azkenik, lastailaren 31 eta azaroaren 15aren artean Irurtzungo osasun eskualdeko 2.058 pertsonak etxean jaso dute programan parte hartzeko gonbidapena (1.141 gizonezko eta 917 emakumezko). Sakandarren erantzunaren arabera programa martxora arte egonen da.

## Probaren nondik norakoak

Lehenik, 50 eta 69 urte arteko pertsonak etxean minbiziaren detekzioarako programan parte hartzeko gonbidapenak jasoko dituzte. Inolako sintomarik izan gabe ere programan parte hartzea komenigarria dela diote osasun arduradunek. Aipatutako epean gonbidapenik jaso ez dutenek bi aukera dituzte: 848 423 498 telefonora hots egin edo [precolon@navarra.es](mailto:precolon@navarra.es) e-postara idatzi. Gonbidapenarekin batera programaren barruan dauden pertsonak etxean euren izen-abizenak eta bestelako datuak dituen kit etiketatuta bat, pote txiki bat, jasoko dute. Euren egitekoa hartan kaka jasotzea eta hozkailuan egoki kontserbatzea da. Hori nola egin azaltzen duen argibide orria ere jasoko dute. Kit horiek osasun etxean edo kontsultategian eman behar dira, gonbidapenean jarritako egun eta orduetan.

## Emaitzak, azkar

Laborategietako teknikariek jasotako kaka zatietan odola

dagoen aztertuko dute, tumorea edo arrisku patologiarik dagoen ikusteko. Emaitzak 2 edo 4 egunen arteko epean izaten dira, gehienez 15 egunetan. Negatiboa bada, Osasunbideak gutun bidez emanen dio horren berri. Baina gogoraraziz proba bi urtean behin egitea komenigarria dela.

Emaitza positiboa bada, hau da, kaketan odola antzeman badute, telefonoz hots eginen diote eta bere medikuarekin hitzordua jarriko diote, diagnostia konfirmatzeko proba egiteko. Sendagileak aurretik duen prozesu guztiaren berri emanen dio, baita probarako ezinbestekoak diren prestakinak eta aurreko egunetan izan beharreko dietaren berri ere. Kolonoskopia egingen baitiote.

Hura egin aurretik ere informazioa emanen diote programaren barruan dagoen pertsonari. Haren emaitza gutun bidez jasoko du. Gutunean bere kasuaren jarraipenerako jarraibideak ere zehaztuko dira.

Osasunbideakoa ez den beste osasun-aseguruetakoak direnei kirurgiarik edo bestelako probarik egin behar badiete, haien aseguru-konpainiaren bidez eskatu behar dute.

Euren kaka laginak hilabete baten edo biren buruan eman ez duten pertsonen Osasunbideak proba egitea komenigarria dela gogoraraziko die. Beste osasun eskualdeetako eskarmentua izanik, osasun arduradunek aurreratu dute 1.500 laginetatik 100

**MINBIZIA GARAIZ  
DIAGNOSTIKATUTA  
% 90 SENDATZEN DA.  
AURRERATUTA  
BADAGO, % 50**

**Ostiralero SAIOA**  
9:30ean  
Errepikapenak: 14:00 - 19:00  
Astelehenetik ostegunera  
Metropoli forala  
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Eneida

Gaurko gaiak:

- Sexu erasoaren epaiketaren tratamenduaz eta bestez Idoia Goikoetxearekin.
- Joseba Ezkurdiarekin gaurko partidaz.
- Aritz Igoarekin izan den bioeraikuntza ikastaroaz.

Urriak 14. Tolosako EHko Bertso Txapelketako kanporaketa zuzenean INFO7 Irratiaren bidez. Eneko Lazkoz arituko da.

 **INFO7**  
IRRATIA

**beleixe** 107.3 FM  
www.guaixe.eus-en ON LINE

bat kasu positibo izanen direla eta ondorioz kolonoskopia egin beharko dela. Haren bidez 8 bat tumore gaizto eta arrisku handiko polipoak dituzten 30 bat pertsona opatzea aurreikusten dute. Azken horiei polipoak kenduko dizkiete, tumore inbadi-tzaile ez bihurtzeko.

### Prebentzioa

Nafarroako Minbizia Erregist-roko datuen arabera 2008 eta 2009 urteetan Nafarroan kolon eta ondesteko 978 minbizia kasu izan ziren, tumore guztien % 15,60.

Sexuaren arabera, bigarren pos-tuan dago gizonezkoetan (603 kasu) eta emakumezkoetan (375). 2008-2012 epean, arrazoi hori dela eta Nafarroan 232 gizon hil ziren batez beste (minbiziagatik hildako kopuruaren % 13,11) eta 86 emakume (guztiaren % 14,90); gizonezkoen bigarren postuan dago, eta emakumezkoetan, lehen-goan.

Osasun arduradunek minbizia mota hori prebenitzeko bizi-tza-estilo osasungarriak izatea garrantzitsua dela gaztigatu du. Horren barnean sartzen da elikadura egokia (haragi gorria, prozesatuak neurrian jatea, suaren gainean zuzenean asko egindako edo ongi egindakoak neurrian jatea; zuntz askoko eta koipe gutxiko elikagaiak jatea, esnea eta esnekien kontsumoa sustatzea, elikagaietan dauden kaltzioa eta D bitamina behar bezala hartzea); ariketa fisikoa egitea (egunean ordu erdiz ibiltzea gutxienez intentsitate ertainean), sedentarismoa eta obesitatea saihesteko; eta alkohola eta tabakoa ez kontsumitzea, besteak beste.

50 eta 69 urte artean ez dute-nendako gomendatzekoa da medikura jotzea baldin eta lehen mailako ahaideen artean beste inork izan badu gaixotasuna, edo koloneko edo ondesteko gaixotasunen bat izanez gero.

Hala ere, noiz edo noiz anomaliaren bat igartzen duenak, albat azkarren kontsultatu die-ziola medikuari.

## Informazio +

Web orria honetan: [www.navarra.es/home\\_eu/especial/CancerColon/](http://www.navarra.es/home_eu/especial/CancerColon/)



Josu Alustizak Ignacio Toranzo Martinez mediku geriatriaren eskutik jaso zuen saria. JOSEFINA ARREGI KLINIKA

# Alusti Testak aitortzak jasotzen segitzen du

Josefina Arregi klinika psiko-geriatrikoan garatutako testak Gaztela-Leongo Geriatria eta Gerontologia Elkartearen Kongresuan komunikazio onenaren saria eskuratu du. Heldu den urtean balioztatu egin nahiko lukete.

### ALTSASU

Alusti Testa izena du Josefina Arregi klinika psiko-geriatriko fisioterapeuta Josu Alustiza Navarro eta Juan Jose Calvo Agirre geriatra garatzen ari diren lana. Otsaileko azken as- teburuan Psikogeriatriako Espainiako Sozietatearen 23. nazio kongresuan poster onenaren saria jaso zuten. Gaztela-Leongo geriatria eta gerontologia elkar-tearen XXXII. kongresuan komu- nikazio onenaren lehen saria jaso zuen Alustizaren eta Calvoren lanak Valladoliden larun- batean. Bospasei mediku geriatra entzutetsuz osatutako zientzia batzordeak aurkeztutako lan guztiak aztertu ondoren saritu zuen Alusti Testa.

Altsasuko klinikan garatzen ari diren testa pertsonen gaitasun fisiko eta funtzionala balo- ratzeko balio duen eskala bat da. Orain arte adineko pertsonen gaitasunak neurtzen zituen ha- lako eskalarik ez zegoen eta Alustizaren eta Calvoren lanak

hutsune hori betetzen du. Alus- ti Testak adinekoen balorazio funtzionala eta jarraipena egiten laguntzen du, orain arte erabili diren eskala klasikoan aldean behe eta goi efektua saihestuz.

### Premia

Alustiza fisioterapeutaren kezka pertsonal batetik sortu zen tes- ta. 20 urte daramatza Josefina Arregi klinika psiko-geriatrikoan jendearekin lanean. Jendearen gaitasun fisikoak hobera egiten zuela ohartzen zen, baina nola- bait jaso beharra sumatzen zuen, klinikatik kanpo azaldu ahal izateko.

Horretan ez zioten existitzen ziren eskalak laguntzen eta be- rea sortzea erabaki zuen. Hala,

**BALIOZTATZEKO, HELDU DEN URTEAN ZIENTZIA ALDIZKARI BATEAN ARTIKULUA ARGITARATUKO DUTE**

gimnasio lanarekin pertsonak duten hobekuntza nonbait jasoa gelditzen da eta informazio hor- rrek senideei edo lankideei gai- xoaren garapenaren berri ema- teko balio du. Izan ere, Alusti Testaren bidez ikusi daiteke pertsona baten egoera zein den, zenbat hobetu duen, zein gabe- zia dituen.

Alustizak bere testa baliozta- tzeko eskarmentu eta itzal han- dia duen Jose Calvo Agirre geriatraren lana jo zuen. Hura Donostiako Zorroaga zaharren egoitzan lan egiten du. Harekin elkarlanean ekin dio egiteko horri. Dagoeneko testaren copy- righta egina dute biek. Testa balioztatzeke azken pausoak ematen hasi dira.

### Balioztatzea

Euren helburua da estatuko zientzia aldizkari batean testa- ren berri ematen duen artikulua 2018an argitaratzea. Han euren lana garatzeko egindako iker- keten eta bestelakoen berri ema-

nen dute. 500 pertsona baino gehiagoren datuak jasoak badi- tuzte eta lanean segitzen badi- te ere, 363ren datuetan oinarri- tuta hasi dira artikulua idazten. Behin artikulua idatzita test baliagarria dela erabaki behar- ko da. Horretarako, jendeak erabili beharko du. Eta, dagoe- neko, hainbat tokitan erabiltzen hasiak dira, egokia dela jo du- telako.

Alusti Testa horietara kongre- suetan izandako zuzeneko har- remanen ondorioz iritsi dira. Halakoetan jende askorekin hitz egiteko aukera izaten dutelako. Edo, bestela, Alustiza bera azal- penak emanda. Hala egin zuen joan den ostegunean. Otsagabi- ko osasun etxean. Zaraitzuko adinduen osasun egoeraren berri jaso nahi dute hango osasun profesionalak eta Josefina Arre- giko fisioterapeutaren lanaren berri zutenez, hara deitu zuten. Alustizak bere lanaren inguru- ko azalpena eman eta gero hiru pertsonarekin probatu zuen, haien aurrean. Osasun langileek testa azkar pasatu eta informa- zio handia ematen duela balo- ratu zuten.

Interesa azaldu duten besteak botika laborategiak dira. Horiek euren produktuen baliagarritasuna frogatzeko aukera bat ikusi dute Alusti Testean. Hala ere, 2018an kongresu gehiagotan euren lanaren berri ematen se- gitzeko asmoa dute.

Aurten aipatutako bi kongre- suez aparte, Hego Euskal Herri- ko geriatria kongresuan izan ziren, Gasteizen, maiatzean. Han, tailer baten bidez, eginda- ko lanaren nondik norako guz- tiak azaldu zituzten. Garagarri- lean, bestetik, Geriatriako nazio elkartearen kongresuan ere izan ziren Alusti Testa aurkezten.



Alustiza klinika gimnasioan. ARTXIBOA



ASTEKOA

MARIAN MENDIOLA BARANDALLA

## Egia ezkutak

“Egi gutxi eta gezur asko” eta “Gezurra egiaren soinuan” esapideak askotan entzun ditut egunkariak erostera etortzen ziren bezeroen ahotik. Gezurren mundu horrek gurean eragiten du, baina beste toki batzuetan baino gutxiago. Eta ez gu besteak baino “jakintsuagoak” garelako, lerro artean egoten eta irakurtzen ikasi dugulako, hala beharrez.

Gezurra mila aldiz errepikatzearen bidez, gainera, egiaren zantzuak hartzen ditu, eta hori gertatzen da hainbat gaiekin. Dena den, ez dut gai sozial, ekonomiko, politiko, zientifiko... bakar bat ere aipatuko, guztiok baditugulako gertuko eta urrutiko hamaika adibide.

Badakigu albiste faltsuez baliatzea nahikoa dela edozer motatako esku-hartzeak justifikatzeko. Horregatik, zenbaitetan, albiste faltsuei edo faltsuak izan daitezkeenei

## BADAKIGU ALBISTE FALTSUEZ BALIATZEA NAHIKOA DELA EDOZER MOTATAKO ESKU-HARTZEA JUSTIFIKATZEKO

nola aurre egin “obsesio” bihurtu dugu, ez garelako fido. Tematze horrek, zenbaitetan, gezurrak hankaz gora jartzen lagundu digu. Beste zenbaitetan, aldiz, Aginagako izenez Frantziatik ekartzen digute albisteak.

Gauzak horrela, eta nire lanbidearen ajeak edo deformazio profesionalak

beti jartzen nauelako jendartean sortzen dena ulertzen ahalegintze-bidean, egia-ostea, post-egia edo Post-truth deitutako kontzeptura jo dut. Trumpen garaipenaren ondoren egin zen ezaguna hitz hori, errealitatean baino gehiago emozioetan oinarritutako gertaerak ulertzen laguntzen duelako.

Egia-ostearen sinonimoak dira albiste faltsuak. Horrela, iritzi publikoa mezu emozionalen eta norbanakoen estean arabera egituratzen dute (digute), datu objektiboei edo gertaera frogatuei garrantzia eta pisu gutxi emanez. Hitz ponpoxoa duen hitz honek, itxuraz berria ematen badu ere, betiko propagandaren mekanismo nagusienetakoa erabiltzean datza, hau da, emozioak manipulatzeko eta jendartearen sinesteak edo estereotipoak elikatzea eta zabaltzea.

Horregatik, komunikabide askok etengabeko nahaspila moduan aurkezten dizkigute edozein gertaera edo albiste, egia eta gezurra desberdintzea ia ezinezko bihurtuz. Denboran urrutira joan gabe era honetako albiste edo berri mordoxka bat aurki genezake; alezta, beyetz, baretz?

## HARA ZER DIEN

### Mendekotasuna duten pertsonak zaintzen. Laguntza noiz eskatu?

#### JOSEFINA ARREGI KLINIKA

Askotan, gure lan ibilbidean, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeagatik gehiegizko karga duten senideekin edo zaintzaileekin egiten dugu topo; egoeraz jabetzen ez diren senide eta zaintzaileak. Gehienetan kontua ondo hasten da; asmo onarekin, laguntzekoarekin, gure pertsona maitearen arretaz arduratzekoarekin; ez dugu besteengan gehiegizko kargarik ezarri nahi, izan ere, beste egitekoak, lana, familia, etab. ere badituzte. “Guk denbora libre gehiago daukagu -pentsatzen dugu- eta egoeraz kargu egin gaitezke”.

Egunerokoa dator gero, eta nahi izatea aski ez denaz ohartarazten gaitu; edo ez dela berdina ondo egitea, ondo zaintzea, edo “ahal dugun moduan” egitea. Egun oroz tentsioa sentiarazten diguten

momentuak bizi ditugunez, nola konpondu ez dakizkigun zalantzak sortzen zaizkigu: Ondo ariko naiz? Niregatik ote da horrela tratatzen hasi zaidala? Zer ari da gertatzen? Geroz eta urduriago nago, gaizki egiten dut lo...

Gure buruak baietz esaten jarraitzen du, ahal dugula, gure konpromisoa dela, baina ebaki bat zabaltzen hasten da; egin behar dugula uste dugunaren eta gure emozioen arteko ebakia. Gure emozioak iragartzen hasten dira zerbait ondo ez dabilela, eta ez dakigu egoera nola konpondu, batzuetan bizitzen ari garenaz kontziente ere ez gara. Hau da laguntza eskatzeko momentua. Izan daiteke kanpotik norbaitek esan izana eta guk ikusi nahi ez izatea. Garrantzitsua da maite gaituztenek ematen dizkiguten aholkuei kasu egitea.

Laguntza jasotzeko modu asko dago: gaixoarekin ordu beteko paseo bat ematera etortzen den familiarrekoarena, goizetan gaixoaren garbitasuna egitera etortzen den profesionalarena, zentro espezializatuarena, non gure senidea zainduko eta estimulatuko duten guk etxeko lanak egiten ditugun bitartean, kafe bat hartzen dugun bitartean edo gimnasia klase batera joaten garen bitartean. Honek guztiak zaintzaile rola hobeto garatzen lagunduko digu, eta guri eta gure gaixoari on egingo dio.

Zaintzaile guztiak, erne! Laguntza eskatzeko momentua noizbait iritsiko da, eta egiteak ikuspuntua zabalduko digu eta gure zaintzak hobeak bihurtuko ditu.

## OBJEKTIBOTIK

### 252 kiloko kalabaza tripontzia Etxarri Aranatzen

Kamioi baten gainean ikusgai izan zen igandean, ziza eta landare erakusketan. Uharte Arakilen hazitako 252 kiloko kalabaza zen. Tamaina ederra zuten beste bi kalabaza, Etxarri jasoak 87 eta 35 kilotakoak. Halako kalabazak jateko errezeta ugari beharko dira, beti berdina ez jateko.



# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**  
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administrazioa:**  
Gixane Andueza Galkoetxea  
admin@guaixe.eus

**Kolaboratzaileak:**  
Eñaut Agirrebengoa Apaolaza  
**Zuzentzailea:**  
Miren Alonso Razkin

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107  
618 882 675  
661 523 245

**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Garboa  
kirolak@guaixe.eus

**Maketatzailea:**  
Ruben Imaz Alcaide  
maketazioa@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Maria Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



# Gizarte-ekonomia, sektore guztietan posible

**MIKEL GAITA** SGA KO INDUSTRIA ETA ENERGIA ARDURADUNA

Sakanako Garapen Agentziak gizarte ekonomiari buruzko jardunaldia antolatu zuen Lakuntzan herenegun. Horren inguruan eta jardunaldiaz azalpenak eman dizkigu



Ekonomiaren hainbat arlotako ordezkariak euren esperientzien berri eman zuten Lakuntzako kultur etxean .

SAKANA

## Zer da gizarte ekonomia?

Gizarte ekonomia edo ekonomia sozialeko enpresak dira bere baitan printzipio eta ezaugarri batzuk betetzen dituztenak. Ezaugarriak kooperatibak dira, baina beste asko daude: elkarrekin, fundazioak, lan-enpresak eta abar. Ezaugarri batzuk bete behar dituzte: euren bazkideak zein diren, jasotzen dituzten etekinak nola inbertitzen diren... Baina ezagunena kooperatibismoa da, elkarren arteko kooperazioa eta kolaborazioa.

## Sakanan kooperatibak badaude, bestelakoak ere?

Bai. Kooperatibak dira ezagunenak eta Sakanan baditugu garrantzitsuak. Gehien bat industria arloan, handiak eta potentek. Lan-enpresak edo Lan-sozietate anonimoak badaude,

baina haien ezaugarriak ezezagunagoak dira.

## Gizarte-ekonomiari buruzko jardunaldiaren helburua zein zen?

Lehenik eta behin, gizarte-ekonomiaren ezagutza zabaltzea zen. Horretarako, ANELek (Nafarroako Gizarte Ekonomiako Enpresen elkartea) gizarte ekonomia zer den, nondik heldu den, zein ezaugarri dituen eta zein enpresa biltzen dituen azaldu zuen. Esan ziguten duela 10 urte Nafarroan eratzen ziren enpresetatik bakarrik % 3 zirela gizarte-ekonomian aritzen zirela eta, gaur egun, % 10 inguru direla. Geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari dela. Gero gizarte-ekonomian aritzen diren enpresen adibideak izan genituen. Etxarriko Esekikoek kontatu ziguten nola haien jaiotzatik uste zuten kooperatiba bat sortzea ona zela beraiendako,

eta zergatik. Azaldu zieten hasiera zaila eta traba ugari izan zituztela, baina jarduera horretan urte batzuk pasa eta gero krisia etorri zenezan hura ekiditeko oso lagungarria izan zela. Enpresa bat direnaren ikuspegia galdu gabe, eta enpresa bezala jokatu behar dutela, garrantzitsuena dela haien baloreak eta ideiak mantentzea: nola inbertitzen diren berriz etekinak enpresan, bazkide kopurua mantendu behar dela, ordainketa sistema nola antolatzen den... Eta hori guztia tokiko garapen ikuspegiarekin. Sakanakoak direla eta ibarrean bere eragina hedatu nahi dutela.

## Sakanako Plan Estrategikoaren barruan industria sustatzeko gizarte-ekonomia tresna egokia izan daiteke, ezta?

Jakina. Badakigu azken urte hauetan Sakanan industriak

nolakoak pasa dituen. Jardunaldian beste esperientziak azaldu zigutena da nahiko egonkorak diren kooperatibak direla. Argi utzi zuten kooperatiba izateagatik lana ez dagoela seguru inoiz, enpresak ongi egin behar duela. Baina ongi dauden enpresen barruan lanpostuak seguruagoak direla kooperatiben barruan, duten gizarte ikuspegi horregatik. Tokiko garapen ikuspegi horri ere garrantzia eman zioten. Basaburuan Ernezu kooperatibak garatu duen proiektua adibidez: Jauntsararen tabernarik eta dendarik gabe gelditu ziren. Udalak eraikin bat zuen eta tokiko kooperatiba bat eratu zen taberna eta denda kudeatzeko. Horrek lanpostuak sortzea eta mantentzea ahalbidetu du, jendea herrietan mantentzea eta, azkenean, eskualdeak aurrera egitea.

## Jardunaldiaren zer moduzko balorazioa egin duzue?

Uste dugu proiektu eta ideia interesgarriak jorratu zirela. Arlo desberdinetako proiektuak ekartzen saiatu ginen, sektore desberdinak kontuan hartuz. Izan genuen Esekien, industrian ari dena; Goiener, kooperatibaren ikuspegitik haien energia kudeaketa azaldu zuena; Ernai-zu, merkataritza eta zerbitzuetan aritzen dena eta Hiritik-at kooperatiba, lehen sektoreak proiektu kooperatiboak sustatzeko erabiltzen dituzten tresnak azaldu zituen. Pozik gaude sektore guztietara heltzea lortu genuelako. Eta ikusi dugulako sektore guztietan gizarte-ekonomiako proiektua sortu daitezkeela.

## Sakanako Garapen Agentzian arlo hau eta beste batzuk lantzen segituko duzuela pentsatzekoa da.

Jakina. Ikusten diogun garrantzia dela eta gizarte-ekonomiarekin segituko dugu. Jardunaldiko azkeneko atala talde dinamika bat izan zen zeinetan saiatu ginen identifikatzen herrietan sortu daitezkeen horrelako proiektuak, ikusita zein behar eta zein aukera dituzten. Beraz, ildo horretatik segituko dugu.

## Turismo jasangarriko esperientziak ezagutzera

Turismo sektoreari zuzendutako jardunaldia Aralarko santutegian izanen da ostegunean

UHARTE ARAKIL

Sakanako Plan Estrategikoan markatutako ildoetaz segituz, Sakanako Garapen Agentziak antolatu du jardunaldia. Haren helburua da eskualde eta herrialde batzuetan izandako turismo jasangarriaren inguruko garapen esperientziak ezagutzera. Ibarreko turismo arloko eragileei eta turismoan interesa dutenei zuzendutako jardunaldia da. Lau ereduren berri emanen dute, bertako jakien inguruko tailer eta dastatzeekin. Gainera, eguraldiak laguntzen badu, Aralarren barnako interpretazio txangoa egingen dute.

## Egitaraua

- **09:00** Hasiera.
- **09:30** Sierra Nevada.
- **10:15** Eskaera eta eskaintza nola lotu.
- **11:00** Etena, kafea eta artisau ogi tailerra.
- **12:00** Natur eta kultur ondareekin jarduerak jasangarriak. Deltapolek.
- **12:45** Tokiko produktuen aldeko apustua. Gazta dastaketa.
- **14:00** Filosofia argiko alojamentuak.
- **14:30** Bazkaria
- **16:00** Aralarren, interpretazio paseoa.
- **18:00** Ondorioak eta itxiera
- **18:30** Santutegira bisita.



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor  
SISTEMA  
BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Ollite kalea 16 · Iruñea



Elkartea jendez lepo ekitaldia hasi baino minutu batzuk lehenago. GUAIXE

## 50 urteko auzolana ospatu dute Urdiainen

Aitziber elkarteak bere urteurrena ospatu zuen larunbatean. Makina bat bazkideri aitortza egin zieten. Egun guztiko egitarauan denetarako aukera izan zen, kirola egin, ardoaz ikasi, 200 bazkiderekin batera bazkaltzeko eta parranda egiteko

### URDIAIN

Urdiaindarrek eta, bereziki, Aitziber elkarteko kideak ospakizun urtea dute aurtengoa. Urriztiko igerilekuen 50. urteurrena ospatzeko Andramauztuko festetan brindisa egin zuten. Larunbatean elkartearen eratzearen mendeurrena ospatzeko festa eguna izan zen elkartean.

### Ekitaldia

Elkarteko gela lepo beteta zegoela, ekitaldi nagusiko aurkezle Iñigo Goikoetxeak esan zuenez, pasatu zen hura erreferentzia izan behar duela aurrera egiteko, elkarteak “hasiera hartako gogoarekin, izpirituarekin, aurrera egiteko”. Horregatik, ilusioa izanda, elkarteak beste 50 urte eginen dituela gaineratu zuen. Elkartean egin den “gauzarik garrantzitsuena auzolanean lan egitea” izan zela nabarmendu zuen, “jendea elkartu, eta sortzen den indarra aurrera egiteko oso inportantea da”. Gaur egun 174 kide ditu Aitziber

elkartek; “sortu zenean, herriko gazte guztiak kide egiten ziren. Egun ez da halakorik gertatzen eta hori elkartearen etorkizunerako oso larria da” gatzigatu zuen zuzendaritzako kide Iñaki Berastegik.

### Aitortzak

Elkartea abiarazi zuten 54 bazkide haietako 30ek elkartearen urrezko bazkide txartel bana jaso zuten: Victor Goikoetxea (aurreneko bazkidea, sortzaileen artean adinduena zelako), Juana Rosa Aristizabal eta Jose Migel Arbizu, Pili Albiztur, Begoña Galarza eta Valentin Flores, Migel Jose Ostiza, Julian Etxeberria, Antero Etxeberria, Agripina Zufiaurre, Rosario Etxebe-

**ABENDUAREN 16AN  
ELKARTEARI BURUZKO  
EGINDAKO  
DOKUMENTALA  
MUSTUKO DUTE**

rria eta Juan Ignazio Goñi, Daniel Agirre, Paulino Urtasun, Antonio Galarza, Josetxo Aldaz (elkarteko aurreneko lehendakaria, 31 boto jaso zituen bozketan), M<sup>a</sup> Luisa Bengoetxea eta Sebastian Flores, Jaime Agirre, Eduardo Goikoetxea, Matias Ostiza, Jesus Mari Zufiaurre (igerilekuko auzolanen ardura-duna), Benito Aldaz, Serafina Irigoien, Martin Selva, Migel Angel Zubiria, Rosendo Goikoetxea, Juan Felix Lopez de Goikoetxea, Luzina Galarza eta Migel Andres Galarza, Francisco Galarza, Francisco Lopez de Goikoetxea, Martin Agirre eta Urbano Zelaia. Aitortza jaso zuten ere: Juan Jose Andueza (igerilekuaren mantenuagatik), Patxi Galartza eta Bautista Urtasun (txirrindularitza sustatzeagatik), Lola Martinez (futbol taldearen arropa garbitu eta konpontzeagatik), Valentin Flores eta Gerardo Andueza (pilota eskola). Hildako bazkideak gogoan izan zituzten.



Boluntarioek montatzen dituzte jaiotzetako estrukturak. ARTXIBOA

## Jaiotzen erakusketa igandean ikusgai izanen da

Gasteizek belenzaleen kongresua hartuko du eta handik sakandarren lana ezagutzera etorriko dira

### OLATZAGUTIA

55. Belenisten kongresu nazionala Gasteizen atzo hasi zen eta igandera arte luzatuko da. Sakanako belenzaleen elkartearen lanaren kalitatearen jakitun, antolakuntzak Olatzagutirako bisita antolatu du gaurko. Felipe Oranbengoak azaldu digunez, 200 bat pertsona espero dituzte gaur. “Gure lanari aitortza handia egiten zaio horrek”. Sevilla, Valentzia edota Kataluniako jendeak ezagutzen du sakandarren lana, baina askok eta askok oraindik ez.

Euren lana egoki erakusteko hiru erakusketa prestatu ditu aurreko urteetan egindako jaiotzekin: egoitzan (12 diorama), San Sebastian ermitan (10 diorama) eta Sutegiko gimnasioan (11 arketa). Bisitan zehar eginen dizkieten galderei erantzuteko prest izanen dira sakandarrak. Bisitariak sakandarren lana

ikus ondoren, Olatzagutian bazkaltzera geldituko dira.

### Erakusketa

Sakandarrak larunbatean joanen dira Gasteizera. Sekula ez dira halako kongresu batean egon. Euren asmoa hitzaldi bat entzutea, Gasteizen jarritako jaiotzak bisitatzea, bazkaltzea eta belenzaleen azoka bisitatuko dute.

Olaztiarrak azaldu digunez, kongresua dela eta aurten korrika eta presaka aritu dira aurreko urteetako egokitzen. Kongresurako prestatu duten erakusketa Sakanako belenzaleen elkarteak abendu guztietan egiten duena izanen da. Orabengoak aurreratu digu euren egoitzakoaz aparte, San Sebastian ermitako erakusketa erakusgai izanen dela abenduan eta ilbeltzean. Baina, aurretik ikusi nahi duenak igandean du aukera, 18:00etatik 20:00etara.

## Primitibak milioi erdi pasako saria utzi zuen Altsasun

Altsasuko loteriako 1. zenbakidun loteria administrazioan, San Juan kalekoan, zigilatatu zuten primitibako txartela. Haren jabeak irailaren 30eko zozketan 6 zenbaki asmatu zuen eta horrek 548.517 euroko saria ekarri dio. “Ez dakigu txartela eskuz bete zen edo makinan. Ez dakigu ezer ez” gatzigatu digu Jose Ignazio Imazek, administrazio-

ko nagusiak. Hala ere, saria han eman dutela jakin denetik jende pixka bat gehiago joan zaie.

Agorrilean hiru urte egin zuen Imazek administrazioaren kudeaketa bere gain hartu zuela. Irailaren 30ekoa da eman duten sari handiena “Zorte handia behar da halako sari bat emateko”. Imaz pozik dago administrazioaren martxarekin, “estatuaren kontrol zorrotza dugu. Herrietan jarri dituzten salmenta puntuek kalte egin digute, baina bizitzeko ematen du”.



# Altsasutik sakandarrei dei egin digute

Altsasukoak aske aldarrikatzeko gaurko kontzentrazio handian parte hartzera deitu gaituzte sakandarrak. Altsasuko auziaren urteurrena beteko da bihar eta plataformak informazioa zabaldu eta elkartasuna azaltzeko egitaraua prestatu du

## ALTSASU

Asteburu berezia da hau Altsasun. Joan den urteko ferietan izandako liskarretik urtebete pasa da. Hori gogoan plataformak *Urte 1 muntaita jasaten, urte 1 elkartasuna hedatzen* leloa duen egitaraua prestatu du. "Altsasura begira mobilizazio ugari egin ditugu. Euskal Herrikoak ere. Baina Sakanaoak ez ditugu deitu. Altsasuko auziaren urteurrena betetzen dela baliatuta sakandarrak gaurko mobilizazioan parte hartzera gonbidatu nahi ditugu". Hala azaldu digute herri plataformatik gaurko deialdi bereziaren esanahi. Hitzordua 19:00etan da, udaletxe aurrean.

Asteburuan handik pasatzen direnak plataformaren jardunaren berri ematen duen erakusketa ikusteko aukera izanen dute. Gure Etxea eraikineko kalean hainbat panel jarriko dituzte eta haietan bere urte beteko jardunaren berri emanen dute. Aldamenean jarritako postuan Adurri, Jokini eta Oihani gutunak idaztekoa ere.

## Atzera begira

Bihar goizaldean urtea beteko da. Taberna barruan sortu zen liskarra eta Gartzia Ximenez kalean segitu zuen. Kalez jantzitako bi Guardia Civilen, haien bikoteen eta gazteen artean izan zen liskarra. Lehen ondorioak. Batetik, tenienteak orkatilan haustura izan zuen eta sarjentuak eta bikotekideak kontusio arinekin ospitalean bukatu zuten. Bestetik, bi gazteren atxiloteta, bat taberna batetik bestera zihoala eta bestea atxilotetazetik protesta egiten ari zela atxilotu zuten. Iruñeko 3. zenbakiko Instrukzio Epaitegiko epailearen aurretik astelehenean pasa eta aske gelditu ziren.

Baina ordurako, dagoeneko, liskar bat baino gehiago zen Altsasukoak. Erakunde, alderdi



Ostiralero kontzentrazioan 200 pertsonatik gora elkartzen dira udaletxe parean.

eta eragile ugari gertatutakoa gaitzetsi zuten eta liskarrean izaera politikoa ikusi zuten. Gertaeren kontakizun bat, lintxamenduarena, nagusitu zen lehen ordu haietan eta hurrengo egunetan Altsasuko liskarra estatuko hedabideetan toki handia hartu zuen. Lastailaren 17an bertan Altsasuko Udalaren adierazpenak "zenbait hedabidek gure herriaz eman duten irudia errefusatu du; errealitatearekin ez du zerikusirik". Liskarrak liskar herriaren kontra neurrigabe ari zirela sentitzen zuten altsasuarrek. Ondoz handia sortu zuen informazio tratamenduak. Hurrengo larunbatean, 22an, 2.500 pertsona aterako ziren kalera. Haren hasieran Coviteko lau kide izan ziren, salatuz "izua eta gorrotoa inposatu nahi dute EAEko eta Nafarroako hainbat herritan".

**HIRU PRESOEI  
GUTUNAK IDAZTEKO  
POSTUA EGONEN DA  
ASTEBURUAN, BAITA  
ERAKUSKETA ERE**

**Espainiako Auzitegi Nazionalera** Guardia Civilek epaitegian eta Foruzaingoaren atestatuak bat zetozen eta ondorio bera ateratu zuten: bi guardia zibilek eta haien bikotekideek bizi zutena ez zela ez lintxamendua ezta

jipoi antolatua ere. Baina Guardia Civilak gorroto delitua zela argudiatzeko 80 orriko txostena prestatu zuen, Altsasuko Ospa mugimendua Alde Hemendik dinamikarekin lotuz, besteak beste. Covitek liskarra Espainiako Auzitegi Nazionalen terrorismo delitu salatu zuen eta hainbat pertsona auzipetzea eskatu zuen.

Fiskaltzaren iritzia eskatu ondoren, Espainiako Auzitegi Nazionalako 3. zenbakiko Instrukzio Epaitegiko Carmen Lamela Diaz epaileak Altsasuko liskarreko auzibidea bere esku hartu zuen. Auzia Nafarroan gelditzeko epaitegien arteko gatazka sortu zen, baina Madril-en gelditu da. Makina bat erakunde alferrik eskatu dute auzia Nafarroan epaitzea.

Erabaki hartu zen egun berean, lastailaren 26an, ustez liskarrean parte hartzeagatik identifikatutako gazteak euren borondatez aurkeztu ziren Iruñeko epaitegian. Liskarra izan eta hilabetera, azaroaren 14an, heldu ziren zortzi atxilotetak. Seik Madrilgo espetxetan bukatu zuten eta beste bat gehituko zitzaien. Berderatzi auzipetu izan ziren hasieran, baina bat kanpo gelditu zen, gainera bi adin txikiko ere auzipetuta daude. Guztien askatasuna aldarrikatzeko Altsasun sekula egin den manifestazio handiena hartu zuen: 20.000 pertsona. Lau abenduaren 20an askatu zituzten. Adurrek, Joki-

## Astebururako prestatutako egitaraua

### Ostirala 13

- **19:00** Ostiraleko kontzentrazioa. Argazki erraldoia eginen da eta mikrofono irekia utziko da, udaletxe parean.
- **19:00-21:00** Eskutitza bidalketa masiboa. Postua udaletxe plazan. Altsasukoak Aske, urte beteko jardunaren bilduma-erakusketa Gure Etxeko kalean.

### Larunbata 14

- **12:00-14:30** Eskutitza bidalketa masiboa eta erakusketa.
- **18:00-21:00** Eskutitza bidalketa masiboa eta erakusketa.

### Domeka 15

- **10:00-15:00** Eskutitza bidalketa masiboa eta erakusketa.

nek eta Oihanek oraindik preso segitzen dute Madril-en.

Gurasoak eta herritarrak antolatuta egin ziren. Nork bere aldetik auziaren inguruko albisteak zabaltzen eta atxikimenduak lortzen ari dira orduetik.



**ZURE  
NEURRIRA  
EGINDAKO  
BIDAIK**

Apaolaza Autobusak  
**943.72.48.10**

info@autobusesapaolaza.com  
www.autobusesapaolaza.com

## Gurasoak haien hizkuntza ohiturez

Gurasoak euren hizkuntza ohiturak eta haien eredugarritasuna haurren begietatik ikusteko tailerra

ETXARRI ARANATZ

*Ispiluari begira* tailerraren abiapuntua haurren begirada da, eta haien inguru hurbila (etxea, eskola eta kalea) lan eremua. Eguneroko harremanetan sortzen den komunikazio-hizkuntzari erreparatuko zaio tailleran, euskararen erabilerari arreta jarritz. Izan ere, ikastetxea eta etxea dira, zalantzarik gabe, heziketaren zutabe nagusiak. Irakasleak eredu dira haurrendako, eta baita gurasoak ere. Horregatik, gurasoen hizkuntza eredugarritasunaz hausnartuko da eta gurasoen hizkuntza-ohiturak ikastetxearen errealtatearekin sintonian jartzeko aukerak aztertuko dituzte.

Tailerra Etxarri Aranazko haurrendako eta gurasoendako da, bereziki, LHko 1., 2. eta 3. mailakoendako. Saioak bi adar ditu. Lehenik, haurrek errealtatea modu bisual batean, kolore eta marrazkien bidez adierazteko ariketa egingen dute. Hala, bakoitzak eguneroko hizkuntza-ohiturak deskribatuko ditu. Ondoren, haurrek haien lanaren aurkezpena egingen dute helduei. Ondoren, elkarrekin errealtate horretaz hausnartu eta, aldaketa beharra izanez gero, aukera berriak aztertuko ditugu.

Etxarri Aranazko Udalak eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak Sakanako Mankomunitatearen laguntzaz antolatu dute tailerra. Saioa hilaren 21ean, larunbatean, 11:00etatik 13:00etara izanen da, kultur etxean.

Baina aurretik izena eman behar da. Ostegunera arte egin daiteke, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan (948 464 840 edo euskara2@sakana-mank.eus) edo Etxarri Aranazko Victoriano Huizi udal liburutegian (arratsalde). Tailerra doakoa da.

# "Nola jokatu informatu, sexu erasoaren aurretik"

IDOIA GOIKOETXEA ALTSASUKO UDALEKO BERDINTASUN TEKNIKARIA

Sexu erasoaren epaia jakin berritan, halakoaren aurrean hedabideen eta jendartearen papera zein izan beharko lukeen aztertu dugu berarekin

ALTSASU

**Jakin berri dugu epaia. Sexu-erasoaren berri izan zenean, kezka handia sortu zen Altsasun, ezta?**

Azken finean, gure gizartean pentsatzen dugu halako gauza larriak beste lekutan gertatzen direla. Gurean gertatzen direnean izua, kezka, amorrua eta gauza gehiago sortzen zaizkigu. Nik, hasteko, esan nahi dut orain dela urte eta erdi pasatu zela eta nik uste dut horrelako epaiketa baterako urte eta erdi pasatzea da justizia alde batean uztea. Oso epe luzea da. Salaketa jarri duenarendako eta salaketa jaso duenarendako ere. Nik uste dut zerbait arinago, edo azkarrago egin behar dela. **Sexu eraso baten aurrean justiziarrena da eman daitekeen erantzun bakarra?**

Ezta pentsatu ere. Momentu desberdinak daude. Nik uste dut justizia azken pausoa dela. Justiziara ailegatu aurretik hainbat gauza egin behar dira: emakumeari harrera ematea, salaketa jartzea, osasun etxeak bere protokoloa jartzea eta laguntzea... Eta badago beste arlo bat eta oso-oso garrantzitsua da: gizartearen erantzuna. Ez naiz sexu-erasoen kontra kontzentrazioez eta halakoez ari, baizik eta emakume horri eman beharreko laguntzaz. Hori oso garrantzitsua da. Badago beste urrats bat, eta hau bai dela lehen informatu. Ikusi dugu oraindik badagoela jende pila horrelako kasuetan galdetzen digutena: horrelako gauza bat gertatzen bada, zer egin behar dut nik? Ni protagonista naizenean. Edo ni laguntzaile naizenean. Edo herritar moduan.

**Epaiketaren berri ematerakoan gertatutakoaren xehetasunak eman behar dira? Ez ahal da emakumezkoaren edo salatuaren inguruko epaiketa paraleloak egitea?**



Sexu erasoaren kontrako Altsasuko protokoloaren aurkezpena.

**"URTE ETA ERDI BAT PASA ETA GERO, ISTORIO GUZTIA HEDABIDEETAN, ZERTARAKO?"**

Epaiketa paraleloena eguneroko ogia da. Ni ez nago ados. Nik uste dut epaiketak irekiak direla eta irekiak izan behar dutela, publikoa izateko. Ados. Baina, nik uste, gero hedabideek euren albisteak printzipio batzuekin idatzi behar dituztela. Haiek askotan esaten dute deontologia kodeak eta halakoak dituztela... Nik uste dut, alde batetik, albistea ahal den objektiboan jartzea gauza bat dela. Hala ere, ezin dugu onartu pertsona baten detaile guztiak edo epaiketaren hedabideetan agertzea. Soilik arrazoi batengatik: horrelako xehetasunek ez digutela ematen berririk.

**Morboa elikatu?**

Hori da, besterik ez. Eta gero badakigu horrelako artikuluetan agertzen direla beti emakumezkoen xehetasun askoz gehiago gizonetzkoenak baino. Guretako

hori da kausa bat emakumearekiko justizia ez bermatzeko. **Eta biktimizazio bikoitza ematea ere?**

Jakina. Biktimizazioa da, alde batetik, prozesu guztia. Baina, gero, bi-hiru hilabete edo, orain gertatu den moduan, urte bat pasa eta gero, agertzen da berririo istorio guztia hedabideetan. Baina, zertarako? Esan nahi dut, guri, Altsasun bizi garenoin egin digu kasu honek. Baina Iruñeko bati edo Funeseko bati, zer ekarpen egiten diote halako artikuluek, xehetasun horiek guztiak?. Bat ere ez. Hori ez da berria. Nik uste dut hedabideek hausnartu behar dutela zer nahi duten honekin guztiarekin.

**Hori epaitegira iritsi zen sexu-erasoa izan zen, baina, Altsasun, zortizarrez gehiago izanen ziren, ez?**

Aspaldian udalak, talde feministak, ikastetxeetan ere, gogoz eta gogor, lantzen ari gara eraso sexistak ez izateko programak. Bai, gertatzen da. Batzuk leunagoak dira, gogorragoak besteak. Nik uste dut gero eta gehiago entzuten dugula emakumeek, eta batez ere neskek, ez dutela aguantatu nahi. Baina entzuten

ditugunak edo ohartzen garenak gogorrenak izaten dira. Bai, gertatzen dira, baina baten bat salatzen da, besterik ez.

**Izebergaren punta behintzat ikusten da.**

Bai. Eta inportantea da. Nik uste dut badagoela salatzeke giro aproposa. Eta ez naiz polizia edo epaitegi salaketez ari. Baizik eta salatzeke gure artean, koadriletan... argi esateko horrelakoak pasatzea ez dugula nahi.

**Garai batean bazirudien hemen sexu-erasorik ez zegoela.**

Bai, esaten zen. Nik uste dut halakoak beti gertatu direla. Agian beste batzuk ez; genero indarkeriaren ez hainbeste manifestazio. Baina isildu egiten dugu, eta genuen. Ez bada oso gogorra paso egiten dugu, edo kexa isila eta halakoak. Gero eta gutxiago isiltzen da. Ni entzuten ari naiz jada neskek eta emakume gazteek ezin dutela hortik pasatu.

**Genero indarkeriaren estatu itunari oniritzia eman zioten duela bi aste. Horrek zerbait aldatuko du?**

Gauza on bat behintzat bai. Lehen estatuaren legean genero indarkeria zen gizonetzko batek emakumezko bati egiten ziona, baina haien artean sentimendu-harremana egon behar zuen. Hau da, Altsasuko kasu honetan edo Nagore Laffageren hilketaren kasua ez ziren genero indarkeria gizonetzkoaren eta emakumezkoaren artean sentimendu-harremanik ez zegoelako. Ituna sinatzeko definizio hori aldatu dute. Esaten dute hemendik aurrera ekintza bati genero indarkeria hots egiteko ez dela beharrezkoa izanen sentimendu-harremanik izatea. Nafarroako legean arabera emakumeengano edozein indarkeriari deitzen zaio genero indarkeria. Baina epaiketan estatuaren legediarekin epaitzen dute. Horregatik, Nafarroan horrekin kontraesan bat zegoen. Nik uste dut aurrerapauso dexente izan dela hori onartzea. Dena den, nik ez dakit itun horrek baduen indarra legeak aldatzeko edo legea aldatu behar den definizio hori epaiketetan praktikan jartzeko.

**Zer da sexu eraso bat?**

Sexu eraso bat da sexu bati, argi dugu emakumezkoek dela, nahi ez dutena egitea; hasi piropro batetik eta bortxaketara. Hori guztia. Emakumezkoak ez



## Egunkariak sexu erasoari emandako tratamenduari kritika

Mugimendu feminista egunkariaren epaietaren eta epaiaren berri emateko moduarekin ez daude ados

ALTSASU

“Altsasuko bortxaketarekin orrialdeak bete dituzte, eleberri antza duten artikuluekin, garrantzirik gabeko eta soberan zeuden xehetasunak emanez. Argitaratutako eleberriak, sentsazionalismo ezaugarriak bildu, morboa bilatu eta kasu batzuetan misoginia osagaiak zituena, sen ona lotsarazi du”. Hala hasten da Altsasuko mugimendu feministak sexu erasoaren inguruan bi egunkariak zabaltu duten informazioari egindako kritika.

Feministen iritziz albisteak eman diren moduan “eztabaidan ipintzen da pertsona erasotu baten testigantza eta bere jarraera epaitzen da gau horretan bertan emandako gertakariekin, hori ez delako sozialki espero dena bortxaketa bat jasan duen emakume biktima batengandik”. Altsasuko mugimendu feministako kideen iritziz, “argi izan behar dugu, eraso baten aurretik edo ostean gertatzen dena ez luke iritziz publikoaren esku egon behar. Tankera horretako artikuluek matxismoaren arma



bat dira, ganora gabeko zurrumuruak sortuz, epai sexistak zabaltuz eta iritziz leporagarriak sustatuz, non beste behin ere emakumea galtzaila den”.

Euren iritziz, “prentsak epaietaren xehetasun guztiak argitaratzeak ez du zentzu eraiki-garririk, bai sentsazionalismoa bilatzea eta epaiketa egitea”. Eta gaineratu dute: “Altsasuko herrian hedabideek gertakariak eta pertsonen iritziz manipulatzeko duten gaitasunaren lekuko izan gara, izan gaitetzen kasu guztietan kontziente”.

## 2016ko kinto ospakizuneko sexu erasoagatik zigortuta

Gizonezko altsasuarrari 6 urteko espetxe zigorra jarri diote. Epaiari helegitea aurkeztu diezaioke

ALTSASU

Nafarroako Lurralde Auzitegiko 1. epaitegiak joan den urteko kinto ospakizunetako sexu erasoaren epaia eman du. Jonathan C. R. altsasuarrari sexu erasoagatik 6 urteko espetxea, zaindutako askatasuneko 5 urte, erasotutako emakumezkoari 25.000 euroko kalte-ordaina pagatzea eta harengandik 300 metro baino urrutiago 11 urtez egotera zigortu du, eta lesio arinak eragiteagatik 270 euroko isuna pagatzea zigortu du ere. Epaiaketa hiru saiotan egin zen eta han

aldeek euren bertsioak eman zituzten. Herenegun ezagutu zen epaiari helegitea jarri ahal zaio la Nafarroako Justizia Epaitegi Gorenean.

Nafarroako Lurralde Auzitegiko 1. epaitegian epaitutako sexu eraso 2016ko otsailaren 6ko goizaldean izan zen, kinto ospakizunetan. Emakumezkoak salatu zuenez, 36 urteko gizonezko altsasu bat bere atzetik komunean sartu eta han erasotu zuen, Foru plazako taberna batean. Eraso salatzeko konzentrazio jendetsuak egin ziren.



Aurreko orrialdetik heldu da >>>

badu zerbait nahi, ez badu zerbait onartzen eta beste pertsona batek egiten badio hori eraso da. Sexu eraso eta sexista? Sexu eraso da sexu harremanekin zerikusia duena. Eta eraso sexista da gizonezkoek emakumezkoek egiten dizkiguten erasoak.

**Zer egin behar da sexu eraso larri baten aurrean?**

Hasteko, nik uste dut guk guztiok halakoak gertatu aurretik informazioa izan behar dugula:

nora jo, zein laguntza dauzkagun, zer egin behar den... hori guztia gertatu baino lehen jakin behar dugu. Behin gertatzen zer? Erasotutako emakumezkoak lehenik laguntza eskatu behar du. Oso inportantea da. Badakit zaila dela, badakit schock egotera dagoela baina denok buruan izan behar dugu momentu horretan laguntza eskatu behar dugula. Hori, batetik. Bestetik, emakumezkoak salatu nahi duen edo ez. Salatu nahi badu, proba guztiak gorde behar ditu, hau da: ez dutxatu, ez garbitu, arro-

pa gorde... Gero 112 telefonora hots egin eta protokoloa martxan jartzen da. Nire esperientzia da protokoloa funtzionatzen ari dela. Edo Altsasun Berdintasun Zerbitzu hau dago eta guk beti laguntza ematen dugu. Eta salatu ez badu nahi zerbitzura nahi dutenean etorri behar dira. Salaketarik gabe laguntza ematen duten zerbitzuak badaudela. Hori ere argi izan behar da.

**Eta inguruan suertatzen direnak zer egin beharko lukete?**

Emakumezkoa eta gizonezkoa banatzea. Emakumezkoari lausatasuna eman. Hark zer egin nahi duen erabaki arte itxarotea. Beti galdetu zer nahi duen. Nahiz eta guk ez ulertu edo beste zerbait egin beharko litzatekeela pentsatu. Beti zer nahi duen galdetu behar da. Lasaitu, lagundu, etxera eraman, hurrengo egunean edo orduetan jakinarazi Altsasuko Udalak Berdintasun Zerbitzua duela, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak daudela edo beste zerbitzu batera bideratu emakumezko hori.



Joan den urteko protesten irudiak.

  
**MAPFRE**  
**Ongi pasa ferietan!**


**JOSE ANTONIO IMAZ PRIM**  
 jimazpr@mapfre.com · 948 563 354  
 San Juan 48 behekoa · Altsasu

  
**ONDO PASA FERJETAN**

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722  
 El Ferial, 1 · 948 467 950 / Isidoro Melero · 948 467 725  
[www.pescaderiamariaeugenia.com](http://www.pescaderiamariaeugenia.com)

**Taxi**  
**Jose Iturralde**  
 629 42 80 25  
 9 lagunendako Taxia / Irurtzun  
[taxijoseiturralde@gmail.com](mailto:taxijoseiturralde@gmail.com)  
[www.taxijoseiturralde.com](http://www.taxijoseiturralde.com)

*Lagunduko gaituzu  
Guaixe eraikitzen?*



*Egin zaitez  
bazkide!*





## Beriain, independentisten bilgune bihurtu zen igandean

Euskal Herriko erdigunean elkartu ziren Iratxo taldeak, Sakanako Mendizaleak eta Independentistak deituta

SAKANA

Lurraldetasuna aldarrikatzeko, Euskal Herriko Erdigunera mar-txa burutu zen igandean. "Euskal Herriko Erdigunea ez da inolako herriren jabetza, eta, aldi berean, nafar guztiena da".

Independentzia lortzeko "borrokatzen eta sufritzen daudenak, Katalunia eta Kurdistan tartean" gogoan izan zituzten. Altsasuko atxilotutakoak eta auzipetuta-koak gogoan izan zituzten, herria zigortzen ari direla gaineratuz.



Satrustegiko mendizerrako ekitaldia.

## LABen lan duinaren aldeko ekimen ibiltaria etorriko da

Asteazkenean, 18:00etan, informazio puntua eta prekarietatearen kontrako eskola Altsasuko plazan

SAKANA

Lan duina, bizi duina prekarie-tatearen kontrako kanpaina martxan jarriko du LABek astelehenean. Bi egun geroago, asteazkenean, Sakanara, Altsa-sura iritsiko da ekimen ibiltari

hori. Horregatik, LABeko delegatuak elkartu eta ekintza sindikaleko tailerren parte hartuko dute. Arratsaldean, berriz, informazio gunea jarri eta prekarietatearen kontrako eskola antolatuta du.

Sakanako LABeko ordezkari Gaizka Uhartek azaldu duenez, "pobretze eta prekarizazio prozesuek gure bizitzako eremu guztiei eragiten die. Gaur egungo egoerak lan zentroetan eta kalean egotea eskatzen du; ekintza sindikala eta soziala era integrarean uztartzea". Horregatik, "egoera aldatzeko", LABek "martxan jarri nahi ditu euskal langileria osatzen duten kolektibo guztiak. Martxan prekarietatearekin amaitzeko eta, batez ere, lan duina eta bizi duinaren alde".

## Enpresetan lapurtzen zuen gaizkile taldea desegin dute

Nafarroako hainbat eskualdeetan lapurtu zuten, Sakanan ere

SAKANA

Foruzainek eta Polizia Nazio-nalek 14 pertsona atxilotu dituzte egunotan, Odesa/Makila operazioaren barruan, gaizkile talde bateko kide izateaz akusatuta. Nafarroako 30 enpresa

ingurutan lapurreta egitea egotzen diete. Ustez taldeko buru diren 5 pertsona kartzelaratu dituzte, Agoizko lehen instrukzio epaitegiak hala aginduta, eta gainontzekoak auzipetu egin dituzte. Hauetako pertsona ba-

tzuk beste lapurretagatik atxilotuta zeuden eta beste batzuk herrialdeetik kanpo.

2016an ekin zioten ikerketari, Nafarroako hainbat enpresek lapurretagatik salaketa jarri ostean. Nonbait, modus operandia antzekoa zen eta lapurtutako objektuak ere, antzekoak: dirua eta bitxiez aparte, txatarra, material elektrikoa, motorrak, altzairuzko pieza handiak, gal-darak eta beste lapurtzen zituzten. Tartean Sakanako enpresa batzuetan ere lapurtu zuten.

## Errefuxiatuen aldeko oinezko martxa antolatu dute

Hilaren 28an, larunbatean, 18:02an izanen da, Uharte Arakilen, Sakanako Herri Lasterketarekin batera

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak antolatu du oinezko martxa. Herri horrek hartzen du aurten ibarreko erakundeko Kirol Zerbitzuak antolatutako Sakanako Herri Lasterketa. Ibil-bidea markatuta dagoela baliatuz, proba nagusiko korrikalariak abiatu eta segituan aterako dira martxakoak. Helburua 4.000 metroko zirkuitua oinez osatzea, errefuxiatuen alde eginez. Martxan parte hartzen dutenen artean zozketa izanen da.



Sentsibilizazio ekimenak izanen dira.

**TARTEAN**  
testora  
HOZ  
PABLO TILLERIA  
JONAN  
JONAN ORICI  
HIZOAK  
MIKEL MARTINEZ  
PABLO TILLERIA  
HIZOAK  
ANDREA GARCIA  
DE LOS RIOS  
MARIA ARRIAGA  
PABLO ALLOE

**EZ DOK HIRU**  
EUSKAL  
MUSIKAREN  
ERAKUNTZA  
JITZURRIA

**Mank**  
sakanara

Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra

www.nafarroa.com

**URRIAREN 21ean (LARUNBATAREKIN)  
ARRATSALDEKO 19:30ean  
ALTSASUKO  
IORTIA KULTUR GUNEAN**

**BILTOKI**  
TABERNA • JATEETOKI

ferietan ere,  
bakarrak barran

948 467 876 - Altsasu

Ogiaren artisauak

**PORTUKO** okindegia

goza dezazuela  
Altsuko ferietan

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 - Lantegia: 948 467 153





Txistorra eta ardoa banatzen herritarren artean. GUAIXE

## Txistor Eguna 10. urteurrenari begira

Ospakizuna 50 bat arbizuarren auzolanarekin egin zen. Heldu den urtean Txistor Egunak 10 urte beteko ditu; aurtengoaren balorazioaren ondoren urteurren borobila prestatzen hasi dira udalean.

### ARBIZU

Eguraldia lagun, Txistor Egunaren 9. edizioak jendetza erakarri zuen Arbizura. Frijitutako txistorraren usainari aurten patatekin nahastutako txitxi-kiarena gehitu zitzaion. Pintxo moduan, ardoa lagun, 2.500 bat pintxo banatu zituzten. 100 bat kilo txistor herriko ekoizle diren Arbizu, Flores eta Laket enpresek emanak.

Ohi bezala, arbizuarrek, eguneko beste protagonistek, hainbat erakustaldi egin zituzten. Garai batean etxean egiten ziren erara prestatu zituzten txistorrak eta tripotak, sagardoa, txantxiorkak, gazta, artaporkak... Eliz ondoan egindako zotolan euskal arrazako txerriak ikusgai izan ziren. Kale Nagusian 30 bat salmahaiz osatutako azoka izan zen. Bisitariak hartan ekoizlee-kin hitz egin eta haien produktuak erosteko aukera izan zuten, esaterako: gazta, ezti, ogia, txokolatea, berdurak, txistorra eta artisau produktuak.

Txistorra pintxo lehiaketara zortzi parte-hartzaile aurkeztu ziren. Andra Mari ikastola ordezkatu zuten Esther Razkinek, Mila Berastegik eta Maite Berastegik aurkeztutako pintxoak izan zen lehen saria irabazi zuena. Txerri hankak, txistorra, onttoak, galeper arrauntza eta ontto saltsaz egindako pintxoak aurkeztu zuten. Horrek 300 euroko saria eta txapela merezi izan ziren.

Javier Diaz (Alhambra jate-tekoea), Fernando Flores (Enekorri jatetxekoea), Manoli Arza (Artza jatetxeko sukaldaria izandakoa), Nekane Zubizarreta (Altsasuko Basomutur jatetxekoa) eta herriaren ordezkari Inñexi izan ziren epaileak eta aho batez hartu zuten erabakia.

Beste parte-hartzaileak honakoak izan ziren: Kiroldegi taberna, Kafe Antzokiko langileak, Baxerri jatetxea, Arrautseko taberna, kanpineko biziozaleak taldea, Karrika taberna eta Zabalarte.



### Trikitixa eskolen festa

Nafarroako Trikitixa Eskolen Jaialdia hartu zuen Arbizuk igandean. Zazpi trikitixa eskoletako ikasleek, haur, gazte eta helduek, parte hartu zuten ospakizunean. Hiruna pieza jo zituzten.



Kalderete lehiaketak gazteak eta gaztetetik pasatakoak bildu zituen. GUAIXE

## Gaztetxea, 27. urteurren ospakizun betean

Joan den osteguneko okupazio eguna gogoratuz astebururako egitarau zabala antolatu zuten

### ALTSASU

Gaztetxearen 27. urteurrena hasteko Altsasuko Gazte Asanbladak (AGA) oroimen ekitaldia egin zuten, eraikinari dantzatzu eta plaka bat jarri. Ostegunean izan zen, etxajua piztu ondoren. Pintxo-pote eta kantaldiarekin joan zen aurreneko eguna. Haurrei eskainitako jokoekin eta antzezlan batekin osatu zen ostirala.

Larunbatean, berriz, Foru plazan, koadrilaka kaldereteak egin zituzten goizean goizetik. AGA-ko kide batek azaldu zigunez, hiru bat urte dira gaztetxeko plaza utzi eta Foru plazara al-

datu zirela, “jende pila bildu eta hura txiki gelditu zelako”. Kalderete lehiaketa bera “gaztetxeak herrian duen indarraren erakusleho” zela nabarmendu zuen. Beste behin ere lehiaketak egungo gazteak eta gaztetetik pasatakoak bildu zituen. Ez zuten aukera galdu eta preso dauden Adur, Jokin eta Oihanen aldeko talde argazkia egin zuten. Arratsalde jokoekin eta elektro txar-rangaren kalejirarekin osatu zen. Ospakizunak ordu txikiak arte iraun zuen gaztetxean izan zen dantzaldiarekin. Asteartean, berriz, Gasteizko Errekalear auzoaren inguruan aritu ziren.



GUAIXE

## Natur aberastasuna plazan

Etbarri Aranazko plazan lau mahai ilara luze-luzeak. Eta haien gainean botanika eta mikologia erakusketa. Makina bat landare eta ziza herriko dermioan jasotakoak. Bestetik, Jose Ramon Belokik 10. urtez mikologia ikastaroa eman du Larrañeta elkartearen.



# ALTSASUKO FERIAK

## Feria asteburuan denetariko eskaintza

Udazkeneko ospakizuna hartuko du asteburuan Altsasuk, feriak. Besteak beste, peñek, kirol taldeek, Arte Bidek eta udalak antolatutako egitarauaz goza daiteke.

### ALTSASU

Gaur hasi eta igandera arte feriak ospatuko dira Altsasun. Peñek piztuko dute etxajua egitaraua aletzea ekarriko duena. Pilota profesionala, atletismoa eta taekwondo osatzen dute ferien kirol atala. Iortia filmak, bertso poteoa, argazki rallya eta Benito Lertxundiren kontzertua kulturakoa. Baina dantzaldiak, herri bazkariak, peñen kalejirak eta bestek festa giroa ziurtatuko dute

Domekako zaldi lehiaketara 57 buru aurkeztuko dira. Irurtzun, Zuhatzu, Satrustegi, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Urdiain eta Altsasu abeltzainak dira Zelai kalean ikusgai izanen direnak. Zaldi lehiaketan zortzi mailetan hiruna sari emanen dira, baita herriko zaldi onenaren saria. Guztira 2.820 euro banatuko dituzte saritan. Ferialeku kalean, berriz, Etxarri Aranatzko, Bakaikuko eta Senosiaingo lau abeltzainen 41 behi izanen dira ikusgai. Haiengandik ez oso urruti Etxarri Aranatzko eta Altsasuko bost artzainen latxa ardiak egonen dira.

Igandean Altsasuko feriera etortzen denak artisauen postuetan pateoa, ezta, babarrunak, ogia, pastelak, gazta, kontserbak, txistorra, taloak, txokolateak, hestebeteak eta bestelakoak erosteko aukera izanen du. Guztira 80 postu jarriko dira. Gartzia Ximenez 41, Foru plazan 12 eta Ferialekun 17.

### OSTIRALA 13

**18:00 Etxafuegoa**  
Gure Etxea eraikinetik.

**18:15 Haurrendako jolasak eta txokolate-jana,**  
Foru plazan. Antolatzailea: Peñen batzordea.

**22:00 Lau t'erdiko txapelketa**  
Burunda pilotalekuan. Antolatzailea: Aspe.

**22:00 Gaurkotasuneko zinema:**  
Detroit, Iortia kultur gunean.

### LARUNBATA 14

**11:00 Altsasuko ferietako ikastetxeen arteko XXXVIII. krosa.**  
Irteera: Foru plaza. Antolatzailea: Dantzaleku Sakana Kluba.

**12:00 X. Onddo lasterketa (norgehiagokarik gabea)**  
Irteera: Foru plaza. Antolatzailea: Dantzaleku Sakana Kluba.

**12:00 Kalejira**  
Burundar Txistulariekin.

**12:30 Altsasuko erraldoi eta buruhandiak**  
Iortia zabalgunetik hasita.

**12:30 Bertso poteoa**  
Irteera: Foru plaza. Antolatzailea: Euskal Herriaren Euskaraz taldeak, Sakanako Mankomunitatearen laguntzarekin.

**15:00 Peñen bazkaria**  
Zelandi frontoian.

**16:30 Peñen kafea, elkartzek elkarteko poteoa eta kalejira**  
Auzatea ibilbidean zehar.

**16:30 Piriniotako artzakurren XIII. topaketa**  
Baratzakobide plazan. Antolatzailea: Espainiako Piriniotako Artzakurren Kluba.

**19:30-22:00 Japoniar bonbak eta dantzaldia**  
Trikidantz taldearekin, Foru plazan.

**20:00 Benito Lertxundiren kontzertua**  
Burunda pilotalekuan.

**20:00-21:30 Peñen jaitsiera eta plazara iristea.**

**22:00 Zezensuzkoa**  
Foru plazan.

**22:00 Magra-jana**  
Gaztetxean. Antolatzailea: Altsasuko Peñak.

**23:00 Elektrotzaranga**  
Antolatzailea: Altsasuko Peñak.

**24:00-03:00 Dantzaldia**  
Trikidantz taldearekin, Foru plazan.

### DOMEKA 15

**9:00-14:30 Dianak**  
Altsasuko txistularien eskutik.

**Zaldi lehiaketa eta sarien banaketa**  
Zelai kalean.

**Zaldi azoka**  
Zelai kalean.

**Ardi latxen erakusketa**  
Ferialeku kalean.

**Pirinioko behi erakusketa**  
ferialeku kalean.

**Nekazaritzako elikagaien azoka**  
Gartzia Ximenez kalean eta Foru plazan.

**Erreminten eta makinaren erakusketa**  
Otdadiko Kristo Deuna plaza inguruan.

**Azoka txikia**  
(arropak, oinetakoak...), Baratzakobide plazan.

**Mikologia erakusketa**  
Garbitoki eraikinean. Antolatzailea: Altsasuko Mikologia Elkartea.

**XXXI. Argazki rallya**  
Antolatzailea: Altsasuko Mendigoizaleak.

**VI. Altsasuko arte azoka**  
Iortia kultur gunean. Antolatzailea: Arte Bide Taldea.

**11:00-14:00 Ibilaldiak zaldiz**  
Txikiendako, Zubeztia plazan.

**17:00 Familia arteko zinema**  
Nur eta herensugerearen tenplua, Iortia kultur gunean.

**18:30 Taekwondo erakustaldia**  
Iortia zabalgunean. Antolatzailea: Bargagain Taekwondo Kluba.

**19:00-21:00 Japoniar bonbak eta dantzaldia Fidel Zelaiarekin**  
Foru plazan.

**19:30 Gaurkotasuneko zinema**  
Detroit, Iortia kultur gunean.

**21:00 Zezensuzkoa**  
Foru plazan.



Auritz arrazako zaldia. ARTXIBOA

## Feria argazkitan hartzera deitu du Altsasuko Mendigoizaleak-ek

31. ferietako argazki rallya antolatu dute igande goizerako, Herriz Herri txapelketarako baliagarria dena.

### ALTSASU

Altsasuko ferietako argazki rallyan parte hartu nahi dutenek igandean 08:30etik 10:30era pasa daitezke antolatzaileek Erkuden kalearen 8. zenbakian duten egoitzatik. Izena ematearekin helduek 10 euro pagatu beharko dituzte eta hurrek 5. Txarteldun kamera digitalarekin gorenko kalitatearekin atera beharko dira argazkiak. Lanak 13:00etatik 14:00etara aurkeztu daitezke, edo lastailaren 22ra arte altsasukoargazkiak@gmail.com e-posta helbidera bidali daitezke.

Jakina, rallyaren ordutegian ezin dira ordenagailuak erabili.

Antolakuntzak ezarritako gai bakoitzeko parte-hartzaileek argazki bana aurkeztu beharko dituzte, baita haiek agertzen diren beste bat ere. Argazki bakoitza bere izenburuarekin aurkeztu behar dute. Haur eta helduen mailetan hiruna sari banatuko dira. Gainera, saririk gabeko bazkidearendako eta gaiaren inguruko argazki onenarendako sari bana izanen da. Argazki erakusketa azaroaren 3tik 11ra arte izanen da, Iortian.

# Ezkurdia: "Ongi nago, lau t'erdikorako gogotsu"

**PILOTA** Ezkurdiak eta Artolak lau t'erdiko final laurdenetako ligaxkako partida jokatuko dute gaur, ostiralean, 22:00etan, Altsasun (ETB1). Etxean jokatzearatik pozik dago arbizuarra eta Artolaren kontrako partida "zaila" izango dela adierazi du

Egunotan lau t'erdiko txapelketako final laurdenetako ligaxkako lehen jardunaldian murgilduta daude pilotariak. Partida bat Altsasuko ferietan jokatuko da, gaur, ostiralean, 22:00etan, Burunda pilotalekuan (ETB1). Hain zuzen ere, kaiolako txapelketan dugun ordezkari bakarrak, Joseba Ezkurdia arbizuarrak, Iñaki Artola izango du arerio.

Txapelketako final zortzirenetako kanporaketan Ezkurdiak Mendizabal III.a menpean hartu zuen, 11 eta 22. Artolak, ordea, gehiago sufritu behar izan zuen Unai Laso menpean hartzeko. Bi pilotariak konfiantzarekin daude eta kaiolako final laurdenetako ligaxka ongi hastea garrantzitsua dela nabarmendu zuten material aukeraketan


## Materialarekin "gustura"

Arbizukoak berehala aukeratu zuten materiala. "Ikusitako materialarekin pozik eta gustura nago. Azkar aukeratu ditut pilotak, ez dut dudarik izan. Hori seinale ona da, alde batetik" azaldu zuen Ezkurdiak.

Gaurko partida "zaila" izango dela nabarmendu zuen. "Partida zaila izango da. Iñaki fisikoki oso ongi dago, arerio gogorra da. Eta oso deserrosoa. Lasoren kontrako asteleheneko partida gogorra izan zen, eta Iñakik ongi jokatu zuen.

Badakit irabaztea nahi baldin badut gauzak oso ongi egin behar ditudala eta nire jokoa egin beharko dudala, Iñaki erritmoa ezartzera aterako baita hasieratik. Gogoezin nago, eskuetatik ere ongi nabil, fisikoki ongi ikusten naiz eta hori inportantea da. Animotsu, gauzak egiteko gogoezin, konfiantzarekin nago... ea lortzen dugun" aitortu zuen Arbizuko aurrelariak.

Ezkurdiak adierazi digunez, irailean hasi zen lau t'erdia presatzeko entrenamenduekin. Uda-



Ezkurdia eta Artola, materiala aukeratu ondoren.

## EZKURDIAK ETA ARTOLAK EZ ZUTEN APARTEKO ARAZORIK IZAN MATERIALA AUKERATZEKO

ko partidak erritmoa, konfiantza eta txispa hartzeko ongi etortzen direla aipatu zuen "bestela, asko deskonektatzen bada, gero komeriak". Etxean jokatzearekin ere pozik azaldu zen.

"Altsasuko frontoia ez da beste batzuk bezain noblea, estraño batzuk egiten ditu, baina askotan jokatu dut hemen, gustura, herritik gertu, eta jende ezagun askorekin. Horregatik gustura aterako naiz eta ea partida on bat egiten dugun" gaineratu zuen.

Lau t'erdiko ligaxkako beste partidei dagokienez, atzo Bengoetxea VI.ak eta Olaizola II.ak jokatu zuten Iruñean -Guaixe ixterakoan ez genuen emaitzaren berririk-.

Bestalde, Victorren eta Elezkano II.aren arteko partida bihar, larunbatean erabakiko da, Ezkarain, eta Urrutikoetxea eta Altuna III.a igandean lehiatuko dira, Lekunberrin.

## Altsasuko pilota jaialdia

Gaur, 22:00etan, Burunda pilotalekuan (ETB1)

### Binaka

Retegi Bi-Zabaleta / Jaka-Rezusta

**Lau t'erdiko Txapelketa**  
-Ezkurdia / Artola

## Bakaikoa promoziotik at

Promozioiko edo 2. mailako lau t'erdiko txapelketan, larunbatean, Labriten, Agirrek 22 eta 20 irabazi zion Joanes Bakaikoa etxarriarrari. Lehia oso estuan, Bakaikoa ez zuen sekula partida galdutzat eman eta Agirrek ederki izerditu egin behar izan zuen garaipena lortzeko.



Katxarro guztiek ibilbidea egin zuten elkarrekin.

## 130 katxarro baino gehiago bildu ziren Bakaikun

**AUTOMOBILISMOA** Bakarrekotxeak eta Kotxkok antolatutako III. Katxarro Egunak ikusle ugari bildu zituen

Oso kontentu daude Bakaikuko Bakarrekotxeak elkartekoak eta Kotxko tabernakoak, larunbatean elkarrekin antolatutako III. Katxarro Eguna guztiz arrakastatsua izan zelako. "Oso ongi joan zen dena. Herritarrak bere katxarro zaharrak ateratzera animatzen dira geroz eta gehiago. Neguan bizikletak, kotxeak... prestatzen dituzte, Katxarro egunean ateratzeko. Hori da sustatu nahi duguna, traste zaharrak gordetu, txukundu eta erakusteko zaletasun hori".

### Katxarro kuriosoak

Oso animatua egon zen Bakaikuko plaza. Denboran atzera egiteko aukera eman zuten bertan ikusgai zeuden ibilgailuek. 70 auto baino gehiago, 30 bizikleta baino gehiago, 25 moto inguru, Urbitarteren kamioia, traktore zahar batzuk eta Ignacio Arbizuren gari sortak egiteko makina, "agavillador" de-

lakoia ikusi ahal izan ziren gertutik. Horretaz gain, Razesak Indurainek 1990 edo 1991eko Tourrean erabili zuen "cabra" ekarri zuen. "Gorka Arbizu iturmendiarrak aurten Turbo 1, Alpine bat eta R-5 Turbo bat ekarri zituen. Eta Jimmy Vazquez altsasuarrak antzineko motor ikusgarriak. Artista batzuk dira. Aurten ere Amillano altsasuarrak traktore zahar bat ekarri zuen. Eta gero sakandarrak aparte -20 parte-hartzaile inguru izango dira- Iruñea, Gasteiz, Donostia, Mendavia, Lizarrara, Pradejón... txoko ezberdinetatik etorri dira parte-hartzaileak" nabarmendu zuten. Pradejonetik etorritakoak lortu zuen urrutienetik etorritako katxarroaren saria. Katxarro kuriosoaren saria Jimmy Vazquezek lortu zuen, bizikleta soportea zuen motor batengatik, eta katxarro zaharrenaren saria, Arbizuren agavilladorak.



75 pertsona inguru bildu ziren ondoren antolatutako bazkarian.





Eguraldi bikaina iragarri dute eta Onddo Lasterketan eta martxan parte-hartze handia espero da.

# Eguraldia lagun, goazen onddo artean korrika!

**ATLETISMOA** Bihar, Altsasuko ferietan, 11:00etan 38. Eskolarteko Krosa jokatu da, 11:30ean Oinezko Onddo Martxa eta 12:00etan Onddo Lasterketa. Izena ematea zabalik dago, bihar, probak hasi baino lehen

Dantzaleku Sakana Klubak, makina bat babeslerekin batera, X. Onddo Lasterketa eta 38. Eskolarteko Krosa antolatu ditu Altsasuko ferietan, bihar, larunbatean. Hurrenez urren, goizeko 11:00etatik aurrera kategoria txikiko probak jokatu dira, 11:30ean Oinezko Onddo Martxa, eta 12:00etan Onddo Lasterketa (6,5 km). Helburua atletismoa sustatzea da, eta gure paraje zoragarrietatik barna korrika eginez gozatzea, goiz ederra eta bikaina pasatuz.

Dantzaleku Sakana taldeko kideek aipatu digutenez, aurreko urteko printzipio eta xede bereberekin jarraitzen dute lanean. "Onddo Lasterketa proba ez lehiakorra da. Ez da denborarik hartzen ez sailkapenik egiten. Gozatzea, hori da asmoa. Orain onddoak ateratzen diren gure paraje zoragarrietatik barna korrikan ibiltzea da kontua, lagunartean eta inolako lehia-kortasunik gabe goiza bikaina pasatuz" adierazi zuten.

## **Bildutakoa, Josefina Arregi Klinikaren Lagunendako**

Aurreko urtean bezala, aurten ere oinezkoendako martxa antolatu dute. "Duela urte pare bat Onddo Lasterketarekin Josefina Arregi Klinikaren Lagunak taldea laguntzen hasi ginen. Parte hartzeagatik 5 euroko laguntza eskatzen dugu eta jasotako guztia klinikaren lagunak taldeari ematen diogu. Aurten ere horrela egingen dugu. Laguntza eman nahi zuen baina korrika egitera ausartzen ez zen jendea hurbildu zitzaigun, eta horregatik oinezko ibilaldia antolatu genuen. Erantzun ona izan zuen eta aurten ere errepikatuko da" nabarmendu dute Dantzalekutik.

Etorkizunean ere onddo lasterketarekin beste talde edo ekimen batzuk laguntzea ez dute baztertzen. "Sakanan lan egiten duten elkarrekin lehenetsiko ditugu, beti ere, bailara sustatzeko eta babesteko" gaineratu dute klubetik.

## **Txikienak goiztiarrenak, 11:00etan**

Hasieran kategoria txikiko lasterketak jokatu dira, 11:00etan, Altsasuko plazan. Zehazki, 38. Eskolarteko Krosa izanen da jokoan egongo dena. Lasterketa hau orduko Altsasuko lau ikastetxeetako –Inigo Aritz, Zelandi, Korazonistak eta Mojak– neska-mutikoengan atletismoa sustatzeko antolatzen hasi zen Dantzaleku Sakana. Bukaeran indarrak berreskuratzeko aukera izango dute korrikalari gazteenek.

## **500era iritsiko ote dira?**

11:30ean oinezko onddo martxan parte hartuko dutenak abiatuko dira eta 12:00etan onddo laster-

ketakoak. "Ibilbidea betikoa izango da, 6,5 km-koa. Oinezkoak eta korrikalariak eremu berdinetan ariko dira, baina ibilbide ezberdina egingo dute, elkarren artean traba ez egiteko. Plazatik, basoixitik, San Pedrotik... onddo artean bikain ibiliko gara" aipatu dute Dantzaleku Sakana klubekoak. Eta korrikaren eta oinezkoen festa honetan parte hartzeko deia egin dute. "Aurreko urtean 386 helduk parte hartu zuten oinezkoan eta korrikan eta 86 neska-mutikok Eskolarteko Krosan. Beraz, 472 lagun guztira. Ea aurten 500 partaide biltzen garen!" adierazi dute Dantzalekutik. Eguraldi bikaina izanen dute eta ea kopurua gaintzen duten.

## **Kamiseta, onddoak eta loteak**

Korrikalariak eta oinezko martxakoak onddo eguneko kamiseta jasoko dute opari. Bestalde, partaide guztien artean Altsasuko feriekin lotutako lote ugari zozketatuko dituzte. Patea, gazta, edariak, afariak, bazkariak, zaldi ibilbideak, maillota... denetatik zozketatuko dituzte, tartean sari preziatuena: 4 onddo saski eder.

## **Izena ematea zabalik**

Aurretik, [www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com) web orrian. Egunean bertan, Foru plazan edo Gure Etxean. Dortsala jasotzerakoan 5 euroko laguntza eman behar da, Josefina Arregi Klinikako Lagunak elkarteari bideratuko zaiona.



Aurreko urtekoa Lakuntzan izan zen.

## Sakanako Herri Lasterketarako izena ematea zabalik

**ATLETISMOA** Urriaren 28ean jokatu dira lasterketa eta martxa, Uharte Arakilen

Sakanako Mankomunitateak urtero Sakanako Herri Lasterketa antolatzen du. Aurten Uharte Arakilek hartuko du proba, urriaren 28an, larunbatekin, 18:00etan, "Ongi etorri errefuxiatuak" Ilopean (8 km), junior, senior eta beterranoen mailakoa. Aurretik, 17:00etan, kategoria txikiko probak jokatu dira. Mankomunitatek adierazi digutenez, egitarau eta auzate berezia izango du aurtengo lasterketak eta, korrika probarekin batera, "Errefuxiatuen Aldeko Martxa" ere egingo da, 4 km-ko ibilbide laburra.

## **Urriaren 15a baino lehen, merkeago**

Izena ematea zabalik dago, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) web orrian. Sakanako Herri Lasterketan parte hartzeko, urriaren 15a baino lehen izena ematen dutenek 6 euro ordaindu behar dute txip horia badute, eta 7 euro alokairuzko txipa behar badute; urriaren 16tik 27ra bitartean, 10 euro txip horia izanez gero eta 11 euro alokairuzko txiparengatik. Kategoria txikiko probaren egunean bertan eman behar dute izena, doan. Errefuxiatuen Aldeko Martxan parte hartzeko izena eman beharra dago baina dohainik da.

## KIROLDEGIA Arga eta Aragoi ibaiertzetik mendi txirrindulan

Sakanako Mankomunitateak, Barranka Txirrindula Taldearen laguntzarekin, btt edo mendi ibilaldi ederra antolatu du urriaren 29rako Erriberan barna. Zehazki, Arga eta Aragoi ibaiertzetik gauzatuko da 52 km dituen eta zailtasun aldetik erraza dela baloratu duten ibilbidea, Alesbes, Villafranca, Martzilla, Azkoi, Milagro, Faltzes eta Funes artean.

Izena ematea zabalik dago, Mank-en, urriaren 25a baino lehen (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.eus) edo 686 457 048 telefonoan. Prezioa 10 eurokoa da. Autobusa goizeko 7:00etan aterako da Altsasuko autobus geltokitik.

## TAEKWONDOA

### Bargagainen erakustaldia ferietan

Altsasuko ferietarako antolatu-takoen artean bere txokoa izango du taekwondoak. Izan ere, Altsasuko Bargagain Taekwondo taldeak erakustaldia egingo du igandean, 18:30ean, Iortia zabalgunean. Taekwondoan ikasurtean barna lantzen dutena erakusteko primerako aukera izango dute, bada, gure taekwondistek.

## Altsasuk badu harrobia

**FUTBOLA** Sociedad Deportiva Alsasua (SDA) elkarteko futbol taldeen aurkezpena egin zuten atzo Dantzalekun. Guztira 14 talde izango ditu Altsasuk, tartean emakumezkoen bi talde. Denera 300 futbolari trebatzen ari dira Dantzalekun, 22 entrenatzailearen esanetara. Alfonso Castellanos izango du aipatu futbol talde guztiak koordinatzaileen ardura.

# Patxi Rubio 23.a BUTS-en Donostia-Bilbo etapapan

**MENDI LASTERKETAK** Uhartearrak ia 22 ordu t'erdia eman zituen 140 km eta 8.000 metroko desnibela osatzeko. Dantzaleku Sakanako mendi sekzioko kideek etapako itxiera lana egin zuten, Igorretik Bilbora

Aurreko ostiral gauean hasi eta larunbatean despeditu zen Basque Ultra Trail Series (BUTS) 2017ko laugarren eta azken etapa, Donostian hasi eta Bilbon despeditu zena, bertan parte hartu zuten mendi korrikalariek 140 km, 8.000 metroko desnibel positiboa eta 16 mendi tontor zapatu eta gero.

117 mendi korrikalarik lortu zuten proba gogorra despeditzea eta irabazlea Jon Erdaide izan zen (18:53:32), sekulako lana egin da. Patxi Rubio 23.a sartu zen, ia 22 ordu t'erdiko lan gogorra burututa (22:28:52). Emakumezkoetan, Leire Martinezek irabazi zuen (21:50:43).

Jakina denez, Trail 52 Sport Mendi Kluba taldeak antolatutako Basque Ultra Trail Series probak Euskal Herriko hegoaldeko lau hiriburuak lotu ditu lau etapa ikusgarrietan: Bilbo-Gasteiz, Gasteiz-Iruñea (Lautadatik Sakanara sartu eta Beriaindik Ollora pasa ziren),



Patxi Rubio. ARTXIBOA.SCOTT.YOUREPICS.COM

Iruñea-Donostia (Arakildik eta Irurtzundik pasa ziren) eta, azken, luze eta gogorrena, Donostia eta Bilbo artean. Lau probak kontuan hartuta Carlos Garcia eta Silvia Trigueros izan dira txapeldun handiak.

Dantzaleku Sakana Klubeko mendi sekzioko kideek antolakuntza lagundu zuten. BUTS-eko 2., 3. eta 4. etapetan itxiera lanak egin zituzten. Zehazki, asteburuan azken zatiko itxiera lana egin zuten Igorre eta Bilbo bitartean, balizak kentzen, zintak biltzen, guztia txukun uzten eta atzean geratu ziren korrikalariei laguntza ematen.

## Gorbeia Suzien

Larunbatean, Zeanurin, Gorbeia Suzien mendi lasterketa jokatu zen. Gorbeia Suzien Ternuan (31 km), 464 korrikalari iritsi ziren helmugara, Aritz Egea (3:02:55) eta Ingrid Mutter (3:37:47) buru zirela. Joxeja Maiza etxarriarra 119.a sailkatu zen (4:08:47) eta Aitor Salinas etxarriarra 340.a (5:18:48). Gorbeia Suzien Herrikoian (22 km) Igor Olalde (2:06:24) eta Martina Kantor (2:30:03) izan ziren azkarrenak. Leire Razkin altsasuarra 187.a sailkatu zen (5:55:00).

## PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Doneztebe - Lagun Artea	4-4
Lagunak - Etxarri Aranatz	5-2

SAILKAPENA	
1. Arrotxapea	10
9. Lagun Artea	5
16. Etxarri Aranatz	0

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
16:45	Etxarri A. - San Andres Etxarrin

IGANDEAN	
16:30	Lagun Artea - Lagunak Lakuntzan

Jardunaldi nahiko kaxkaxra.

## ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Altsasu - San Ignazio (atzo jokatzekoa)	

SAILKAPENA	
1. Amaya	8
5. Altsasu	6

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
13:00	Altsasu - Aurrera Dantzalekun

Leitzarren kontra ariko dira altsasuarrak.

## ELOMENDI TXAPELKETA

EMAITZAK	
Eneriz - Zaldua	2-2

SAILKAPENA	
1. Bidezarra	9
3. Zaldua	7

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	

Asteburuan ez da jardunaldirik jokatu.

## ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Errege Kopako final zortzirenetara

Osasuna Magnak Errege Kopako final hamaseirenetan 2 eta 4 irabazi zion Ciudad Realeko 2. mailako Manzanares taldeari. Araçak, Rafa Usinek, Bynhok eta Alvaritok sartu zituzten talde berdearen golak.

Bestalde, ligari dagokionez, aurreko asteburuan Osasuna Magnak 2 eta 4 irabazi zion Zaragoza taldeari. Sailkapen orokorrean Bartzelona da liderra (15 puntu) eta Osasuna Magna hirugarrena da (10 puntu). Gaur, ostiralean, etxean jokatu dute Imanol Arregiren mutilek. 3 punturekin sailkapenean 13.a den Gran Canaria izango dute aurkari, 20:30ean Anaitasunan jokatu den partiduan.



SOCIEDAD DEPORTIVA ALSASUA, GUZMAN LOBO





Auto ikusgarriak gertutik ikusteko aukera izanen da bihar Olaztin eta Urbasan.

# Urbasako auto igoera: 3, 2, 1... bagoaz!!!

**AUTOMOBILISMOA** Bihar jokatu da XXXVII. Urbasako igoera, 13:30etik aurrera. 105 pilotu daude izena emanda. Gaur, gaueko 22:00etan itxiko dute Olaztitik Urbasara bitarteko errepidea. Antolakuntzak segurtasun neurriak errespetatzeko eskatu du

Sakana Motorsport eskuderiak, Nafarroako Automobilismo Federazioarekin batera, XXXVII. Urbasa Igoera antolatu du bihar, urriaren 14rako. Lasterketa Nafarroako Mendi Txapelketarako eta Nafarroako Junior Mailako Mendi Txapelketarako baliagarria da, baina, berez, Urbasako Igoerak xarma berezia du eta soilik horregatik punta-puntuak bertan egongo dira. Horri guztiari primerako eguraldia egingo duela gaineratzen badiogu, milaka zale bilduko dira Urbasako bihurgunetan eta motorraren festa inoiz baino zirrargarriagoa izango da.

**105 pilotu, tartean 6 sakandar** 105 pilotu eman dute izena bihar Urbasako maldetan gora ziztu bizian pasatzeko, aurreko urtean baino 11 gehiagok, Urbasako igoerak duen xarmaren isla. Faboritoen artean Pantxo Egozkue, Joseba Iraola, Arkaitz Ordoki, Garikoitz Flores lakuntzarra, Juan Antonio Castillo

eta beste daude. Beraienak dira probako autorik azkarrenak, barketak eta formulak. Horretaz gain, beste kategorietako pilotorik lehiakorrenak ere Urbasan ikusiko ditugu. Sakandarrei dagokienez, Garikoitz Flores (BRC B49), Iban Lopez de Gokoetxea (Renault 5 GT Turbo), Garikoitz Goñi (Renault Clio Sport), Urko Berdud (Renault Clio Sport), Mikel Goya (Renault 5 GT Turbo) eta Mikel Mendiñueta (Peugeot 205 Gti) ariko dira, guztiak Sakana Motorsport eskuderiakoak.

Aurreko urtean 94 pilotu eman zuten izena Urbasako igoeran eta Joseba Iraola (Demoncar R34+) gailendu zen (3:13.821), Javier Villari (BRC B-49) segundo bat aterata. Garikoitz Flores lakuntzarra (BRC B-49) hirugarrena sailkatu zen (3:19.076).

## Gaur itxiko dute errepidea

Gaur, ostiralean, gaueko 22:00etan itxiko dute Olaztitik Urbasara doan errepidea. Eguraldi ona

egingo duenez, jende asko bezperatik igoko da Urbasara, eta zehaztutako eramuetan aparkatzea eta Urbasa-Andia natur parkea behar bezala zaintzea eskatu dute antolatzaileek. Bihar Urbasara igo nahi dutenek, Lizarraldetik edo Araba aldetik jo beharko dute. Ibilbidean antolakuntzako kideak izango dira, argibide guztiak emateko.

## 5,72 kilometroko igoera

Olazti eta Zudaire arteko NA-718 errepidean jokatu da proba, 38,050 km puntutik 32,220 km puntura (5,72 km eta 285 metroko desnibela), Olaztitik Urbasako portua igo arte. Ibilbideak bi zati dauzka. Lehenengo zatia irteeratik hasi eta "Salto de

## SEGURTASUN NEURRIAK ERRESPETATZEKO DEIA EGIN DU ANTOLAKUNTZAK

aguas" izenez ezagutzen den tokira artekoa da. Zati oso azkarra da, eta, akaso, ibilbideko bihurgunerik okerrera lehen zati horretan dago. Bigarren zatia, aldiz, teknikoagoa da. Bihurgunez betetako zatia da, gehienak ferra bihurguneak edo 180 gradukoak.

## Segurtasuna, funtsezkoa

Pilotuen eta ikusleen segurtasuna bermatzea da antolakuntzaren helburu nagusia eta horregatik, soilik zehaztutako guneetan kokatzeko eskaria egingen zaie zaleei; debekatutako eremuetan ezingo da egon. Gogoratu beharra dago aurreko urtean harriztar bat erori zela eta bi pertsona zauritu egin zituela. Antolakuntzak bertan ez jartzeko kartela jarria zuen, baina ez zen errespetatu. Horregatik, soilik baimendutako eremuetan jartzeko deialdia berretsi egin dute Sakana Motorsportekoek.

Horretaz aparte, Urbasa-Andia natur parkea dela kontuan hartuta eta inguruarekiko errespetua adieraziz, antolakuntzak norberak bere zaborra jasotzea eskatzen du. Aurrekontu handia behar da proba aurrera ateratzeko, aseguruak eta beste estaltzeko. Hori ongi dakite Sakana Motorsport taldekoek. Antolakuntzan Olaztiko Udalaren, Maisuena gaztetxearen eta hamaika komertzio eta babesleren laguntza izan dute.

## 13:30ean hasiko dira entrenamenduak

Bihar, goizeko 8:00etatik aurrera proban parte hartuko duten autoen egiaztapenak hasiko dira, Clinker jatetxe parean, 12:00ak arte luzatuko direnak. Autoak Clinker aurreko futbitoko pistan egongo dira, parke itxian, eta asistentzia gunea Erburua kiroldegiko aparkalekuan egongo da. 13:30ean lehen entrenamenduak ekingo diote autoek eta, segidan, probako bi manga ofizialak jokatu dira. Bukaeran, 20:00ak aldera izango da sari ematea, Clinker parean.

Autoen ikuskizunarekin gozatzeko eta egun polit bat pasatzeko deia egin diete Sakana Motorsportekoek zaletu guztiei. 105 pilotu, auto ikusgarriak, milaka zale, eguraldi bikaina... motorraren festa inoiz baino handiagoa izatea, hori da helburua.



Lapuente eta Ormazabal. SAKANA PATIN

## Ormazabal eta Lapuente irristalariak podiumean

### IRRISTAKETA

Oier Ormazabal 2.a izan zen Barañainen eta 3.a Zaragoza

Larunbatean XXVII. Barañaingo Iristaketa Maratoia jokatu zen. Bertan Sakana Iristaketa edo Sakana Patin taldeko irristalariak lehiatu ziren. Benjaminen emakumezkoetan Iratxe Lapuente hirugarrena sailkatu zen eta benjaminen gizonezkoetan Oier Ormazabal bigarrena. Hurrengo egunean irristalariak, LII. Zaragozako Hiria-Pilareko festen Iristaketa Torneoa jokatu baitzen igandean. Oier Ormazabalek lan bikaina egin zuen eta podiumera igo zen, hirugarrena sailkatu baitzen.

Sakana Patin taldetik adierazi digutenez, aipatu bi proba hauekin 2016/2017 irristaketa denboraldia despiditu da eta Sakana Iristaketa Taldeko irristalariak denboraldi bikaina egin dutela nabarmendu dute. Dagoeneko, irailtik hasita, 2017/2018 denboraldia prestatzen dabilta.





Juanma Oliasek bi lasterketa bikain egin zituen asteburuan Alcañizen: bietan podiumera igo zen. OLIAS RACING TEAM

## Olias Kawasaki Z Cupeko Alcañizko podiumean

**MOTOZIKLISMOA** Kawasaki Z Cupeko Alcañizko lehen lasterketan hirugarrena sailkatu zen irurtzundarra eta bigarrenen bigarrena izan zen. Txapelketako azken proba azaroaren 19an jokatu du Chesten, podiumera igotzeko aukerekin

Gauzak bikain doazkio Juanma Olias pilotu irurtzundarrari. Aurten CEV edo Espainiako Abiadura Txapelketaren barruan antolatu den European Kawasaki Z Cup Txapelketan lehiatzen ari da irurtzundarra, izen bereko motorrarekin, Kawasaki Z 900 moto berriarekin. Kopa honetan 15 pilotu lehiatzen ari dira eta 6 proba dituzte. Dagoeneko 5 jokatu dira: apirilaren 29an eta 30ean Albaceten (lasterketa bikoitza), ekainaren 18an, Bartzelonako Montmelón eta urriaren 7an eta 8an, Alcañizen jokatuak lasterketa bikoitza. Txapelketan puntuatzen duen azken proba azaroaren 19an jokatu da, Valentzian.

### Behetik gora: bigarrena eta hirugarrena

Alcañizko Motorland zirkuitura sailkapen orokorrean 29 punturekin seigarrena zela iritsi zen Olias. Ostiralean entrenamenduak izan zituen, seigarren denborarik onena egin zuen eta

larunbatean eta igandean jokatu ziren lasterketarako irteera postua zehaztu zuen: 6. tokitik ekingo zien bi probei.

Larunbateko lasterketa oso lehiatua izan zen. Seigarren tokitik aterata, izugarri borrokatu zuen eta hirugarren postuan despiditu zuen lasterketa, primerako lana egin eta gero. Horrek igandeko probarako airea eman zion eta Irurtzungoak emaitza oraindik hobea lortu zuen. Seigarrena aterata, borroka bizia izan zuen beste pilotuekin eta, azkenean, bigarren postuan bukatu zuen.

European Kawasaki Z Cup Txapelketako sailkapen orokorrean Raul Martinez da liderra (115 puntu), Joan Sardanyons

### KAWASAKI Z CUPEKO SAILKAPEN OROKORREAN LAUGARRENA DA IRURTZUNDARRA

eta Javier Valera bigarrena eta hirugarrena, biak 81 punturekin, eta Juanma Olias laugarrena, 65 punturekin. Txapelketako azken proba azaroaren 19an jokatu da, Chesten (Valentzia), podiuma zapatzea, bigarrena edo hirugarrena sailkatzea, du jokoan Oliasek. Ea irurtzundarrak zortea lagun duen.



Olias, prentsa aretoan. OLIAS RACING TEAM

## Navarider Day motorzaleen festak, geldialdia Lakuntzan

**MOTOZIKLISMOA** 777 motorzalek hartuko dute parte motorzaleen ibilbide honetan, tartean sakandarrak

Moto Rutas taldeak, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Ostalaritza Elkarteak, hainbat babeslerekin batera antolatuta, bihar, larunbatean ospatuko da 2017ko Navarider Day motorzale nafarren festa erraldoia.

777 motorzale daude izena emanda, %40 nafarrak, tartean sakandarrak. Iruñetik aterata, Nafarroan barna 515 kilometroko ibilbidea osatzea da erronka. Motorzaleak goizeko 7:00etan abiatuko dira, taldeka, Iruñetik. Antolakuntzak zehaztutako 4 kontrol gunetatik pasa beharko

dira: Lakuntza, Biana, Xabier eta Izaba, eta bakoitzean moka-dua hartzeko aukera izango dute. Goizeko 9:00etatik aurrera iritsiko omen dira Lakuntzara. Beraz, Sakanako errepideetan barna eta Lakuntzako geldialdian motor hotsak izanen dira nagusi.

Behin Iruñera iritsita, bukaran, Iruñeko Zentral aretoan Navarider Day festa izanen dute zain motorzaleek. Tartean, La banda del jefe Bigun talde sakandarrak kontzertua eskainiko du, 22:00etan.



Iratxoko Goldarazena eta Ollok elkarrean arteko txapelketa irabazi dute. IRATXO

## Elkarrean arteko txapelketa irabazita, bihar Banakako finalak

**BOTXA** 16 partaide lehiatu dira Banakako Iratxo Botxa Txapelketan. Bihar finalak jokatu dira

Urriaren 2an Banakako Iratxo Botxa Txapelketari ekin zioten 16 partaidek. A taldean ibili dira Mikel Gelbentzu, Txutxurrin, Asensio Galartza, Mikel Arregi eta Juanito Maestre. B taldean, berriz, Eburne Elustondo, Tere Yeregi, Mikel Olló, Santos Iragi eta Gaizka dabilta lehian. Eta C taldean Mari Terez, Mikel Goldarazena, Iban Lopez, Julen Iribarren, Iñaki Juango eta Tere Otxoa. Atzo despiditu zen ligaxka. Gaur, ostiralean, 19:00etatik aurrera, final laurdenak erabakiko dira eta bihar, larunbatean, 19:00etatik aurrera, finalerdiak,

3. eta 4. postuak erabakitzeko partida eta final handia.

### Iratxo, Elkarrean Arteko Botxa Txapelketako txapelduna

Irailaren 30ean Elkarrean Arteko Botxa Txapelketa jokatu zen Iratxon. Irurtzun, Txantrea, Amaya, Berriozar, Antsoain eta Natacion elkarreko 8 bikote lehiatu ziren, guztira. Final ederrean, Mikel Goldarazena eta Mikel Ollok 7 eta 15 irabazi zieten Amaya taldeko Pacori eta Cristobali. Txantreako Valentin eta David 3.ak sailkatu ziren eta euren taldekide Rufles eta Vidal 4.ak.



# Emakumezkoen Altsasu: taldea sendotzea, erronka

**FUTBOLA** Baja garrantzitsuak izan ditu erregional mailako taldeak eta taldea sendotzea eta berrindartzea da aurtengo helburua. Alfonso Castellanos da entrenatzailea. Emakumezkoen beste taldea Futbol 8 mailan lehiatzen ari da

Sociedad Deportiva Alsasuko (SDA) dituen 14 futbol taldeen artean, bi emakumezkoenak dira: emakumezkoen erregional mailako Altsasu eta Futbol 8 emakumezkoen taldea. Emakumezkoen Altsasu taldeek ibilbide nahiko laburra dute; aurreko urtera arte SDAko futbol koordinatzaile zen Gorka Paskuak lan itzela egin zuen taldeak sortzeko. Emakumezkoen futbola oraindik sendotzen dabil eta lan horrekin aurrera jarraitzen du SDAk.

## Aldaketak

“Emakumezkoen Altsasu talde erregionalean aldaketa nabarmenak izan ditugu aurrean. Guretzat jokalaririk oso garrantzitsuak ziren Irati Igoak eta Aroa Cerezok Muliererra egin dute salto, eta hori asko nabaritu dugu. Horrela, gure lana ligari eustea eta taldea sendotzea eta berrindartzea izango da; izan ere, gure lana epe luzerakoa da: emakumezkoen futbola sustatzea eta taldea egitea eta sendotzea, emakumezkoek futboleko gustura aritu daitezen” adierazi digu SDAko futbol koordinatzaile berriak, Alfonso Castellanos. Hain zuzen ere bera da emakumezkoen erregional mailako Altsasu taldeko entrenatzaile berria. “Aurreko urtean Asier Arregi zen entrenatzailea, baina aurrean, eta entrenatzaile berri bat topatzen dugunera arte, ni nabil taldea entrenatzen, oso gustura”.

Irati Igoa eta Aroa Cerezoren bazajaz aparte, ia izaki taldekide ia gehienek jarraitzen dute: Garcia de Albeniz, Gasco, Elizalde, Alzelai, S. Alonso, Lizarraga, E. Alonso, Ruiz de Egin, Amiama, Lopez, Beraza, Leza, Ijurra eta Lopez, eta kadeteetatik Arellano, Agirre, Granizo, Sayas, Apaolaza eta Vergara igo dira. Horretaz gain, Futbol 8 mailan dabilen emakumezkoen taldea



Erregional mailako Altsasuko neskek atzoko aurkezpenean. SDA, GUZMAN LOBO

dauka Altsasuk. Ane Cantero da entrenatzailea eta 12 neska taldea du bere ardurapean.

Emakumezkoen erregional mailari dagokionez, 18 talde ari dira lehiatzen eta bost jardunaldi jokatu, sailkapenean Berrirozar da liderra (15 puntu). Altsasu 13.a da (2 puntu). Orain arte, bi partida berdindu dituzte –azkena asteburuan, hiruna, Ardoirekin– eta gainontzekoak galdu. “Aurrean ligari tamaina hartzea kosta egiten ari zaigu. Azkenean maila ezberdineko jokalariekin ari gara, kadeteetatik igo direnetik hasita helduetaraino, eta hori nabaritzen da. Baina aurrera egingo dugu, emakumezkoen futbola gustuko dugulako eta sustatzen jarraituko dugulako. Epe luzeko lana da hau” nabarmendu du Castellanos. Berrirozar, Amigo, Osasuna, Kirol Sport... dira faboritoak. Igandean Iruntxiki du arerio Altsasuk, 19:15ean, Berrainen.

Atzo goizean SDA taldeko futbol talde guztien aurkezpena egin zen Dantzalekun, emakume erregional taldearena, tartean (ikus Guaixeko 16. orria).

## Altsasu 2017/2018

### Emakumeen Erregional mailako Altsasu 17/18

**Atezainak:** Izaskun Ruiz de Egin eta Maider Granizo.

**Defentsak:** Saioa Sayas.

**Erdilariak:** Sandra Gasco, Alicia Elizalde, June Alzelai, Ane Lizarraga, Edurne Alonso, Maalen Beraza, Nerea Arellano eta Jone Apaolaza.

**Hegalekoak:** June Garcia de Albeniz, Maider Amiama, Janire Lopez, June Leza, Maialen Ijurra, Ioana Lopez, Ainhoa Agirre eta Udane Vergara.

**Aurrelariak:** Sonia Alonso.

**Entrenatzailea:** Alfonso Castellanos.

## EMAKUMEEN FUTBOLA SUSTATZEN JARRAITZEN DU ALTSASUK. BI TALDE DITUZTE

**SUSTATZEN DU:**

**PROIEKTOA ETA ZUZENDARITZA:**

**FINANTZATZEN DU:**

**INFORMAZIOA ETA SALMENTA:**

LUARDENA S.L.  
C/ REMIGIO MÚGICA 2, BAJO  
31005 PAMPLONA (NAVARRA)  
948 174 341 / 610 577 200  
www.luardena.com

**ITURMENDIKO ERDIGUNEAN ETXEBIZITZETAKO SUSTAPENA**

# 5 BOE

NAVARA GOBERNURAREN MAJISTRADO ZENBATA: 31/1-0008/16

**B KALIFIKAZIO ENERGETIKOAREKIN DISEINATURIKO ETXEBIZITZA ESCLUSIBOAK**

**LORATEGIA - GARAJEA - TXOKO INDIBIDUALA**

**OIHARRA:** Lizentzia baldintzengatik alda daitezkeen landareak eta irudiak



## ZORION AGURRAK



**June Etxegoien Zelaia**  
ZORIONAK, Bihotza!  
Dagoeneko 5 urte!  
Zure aitona eta  
amonaren partez.



**Maddi**  
Urte askotarako Maddi  
zure 7. urtebetetzean!  
Zorion muxu erraldoi  
bat zure familiaren  
partez!



**Pili**  
Aupa margolari!! Urte  
askotarako eta muxu  
bat denon partez.



**Hodei**  
ZORIONAK potxolo!! 10  
urte dagoeneko!! Ongi  
pasa eta muxu handi  
bat etxekoan partez.



**Boli**  
Pausoz pauso, oholtzaz  
oholtza, Sakanako  
bertsozaleak zurekin.  
Zorte on!!!



**Eider Oiarbide**  
(Aldaba)  
Zorionak giputxi, jaso  
ezazu besarkadarik  
karibeñoena Altsasuko  
lagunen partez, baita  
Hegoitxorena ere!  
Sisterrrrr !!!

Zorion-agurrak  
guaixen

galdetu: 948 564 275 | zorion@guaixe.eus

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. gutunak@guaixe.eus

## OSTIRALA 13

**ALTSASU Pentsio duina!**  
**Nafarroako Pentsionistak**  
**Martxan elkarrean**  
**kontzentrazioa deitu du.**  
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

**ETXARRI ARANATZ Beilatokia**  
**toki egokian. Nahi izanez gero**  
**posible da kontzentrazioa.**  
19:00etan, Kale Nagusiko 7.  
zenbakiaren parean.

**ALTSASU Altsasukoak aske**  
**kontzentrazioa.**  
19:00etan, udaletxe parean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ**  
**Euskal presoak Euskal Herrira**  
**kontzentrazioak.**  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU Detroit filmaren**  
**emanaldia.**  
22:00etan, lortia kultur gunean.

## LARUNBATA 14

**ALTSASU Altsasutik Dorletako**  
**ama birjinara 90 km-ko**  
**joan-etorria denboraldia**  
**despedituz.**  
Baratzeko bide plazako  
lokomotoratik, 09:00etan.

**ETXARRI ARANATZ Axio**  
**Erdoziari omenaldia antolatu du**  
**Sakanako Amnistiaren Aldeko**  
**eta Errepresioaren Aurkako**  
**Mugimenduak.**  
12:00etan, bere oroigarrian.

**ALTSASU Dekorazio tailerra.**  
Arratsaldez, Intxostiapunta gazte  
gunean.

**ALTSASU Benito Lertxundiren**  
**kontzertua.**  
20:00etan, Burunda pilotalekuan.

**IRURTZUN Jainko basatia**  
**antzezlanaren aurkeztuko du Txalo**  
**produzioak-ek.**  
20:00etan, kultur etxean.

## IGANDEA 15


**ALTSASU Altsasutik Legairera**  
**47 km-ko joan-etorria egingen du**  
**Barranka txirindulari klubeko**  
**mendi-bizikleta taldeak.**  
09:00etan klubeko bajeatetik eta  
09:40ean Urbasako kanpinetik.

**ALTSASU Nur eta herensugearen**  
**tenplua filmaren emanaldia.**  
19:30ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Detroit filmaren**  
**emanaldia.**  
19:30ean, lortia kultur gunean.


## EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 13




Azpimarragarriena temperatura  
maximoen igoera izango da.

Larunbata, 14




Ostiralean jasoko dugun eguraldi  
berdintsua mantenduko da.

Igandea, 15



Asteburuko tendentziari eutsiko dio,  
hodeirik ez eta eguzkia bete-betean.

Astelehena, 16



Temperatura jeitsiko da. Hodeiak  
nabarituko dira baina eguzkiarekin  
jarraituko dugu ibarrean.



**ALTSASU Euskal presoak Euskal**  
**Herrira kontzentrazioa.**  
20:00etan, Foru plazan.

## ASTELEHENA 16

**EGIARRETA Beti oporretan**  
**Harkaitz Canoren liburuaz**  
**hizketatuko dira.**  
19:30ean, elkartean.

## ASTEAZKENA 18

**ALTSASU LABek**  
**informazio gunea jarri eta**  
**prekariatatearen kontrako**  
**eskola antolatu du gazte**  
**mugimenduari batera.**  
18:00etan, Foru plazan.

## OSTEGUNA 19

**ALTSASU Verano 1993 filmaren**  
**emanaldia.**  
19:00ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU**  
**VI. Altsasuko arte azoka**  
Arte Bidek arte garaikideko  
erakusketa antolatu du.  
Lastailaren 13tik 29ra arte  
astegunetan 18:30etik 21:00etara  
eta domeketan 19:00etatik  
21:00etara, lortia kultur gunean.

**Mikologia erakusketa.**  
Lastailaren 15ean 09:00etatik  
14:30era, Garbitoki eraikinean.



**OLATZAGUTIA**  
**Jaiotzen erakusketa antolatu du**  
**Sakanako belenzaleen elkarrean**  
**nazio kongresuaren kontura.**  
18:00etatik 20:00etara Sutegi  
gimnasioan, San Sebastian ermitan  
eta belenzaleen egoitzan.

**DEKOVEN**  
**NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarr.com - www.dekovenavarr.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU • Tel./fax: 948 468 360 • Telefono mugikarra: 690 641 860





## IRAGARKI SAILKATUAK

## HIGIEZINAK

**Nafarroan etxe berri bat saltzen da 4.000 metro karratuko baratza batekin.** 121.000 euro. Tel 650 42 89 82.

## OHARRAK

**Katalaneko mintzataldea.** Katalanez ikasi eta/edo hitz egiteko interesa duzu? Sakanan mintzataldea sortu nahi dugu. Jarri harremanetan gurekin (629 486 123 Monika-Arbizu)

**Otaiko ermitaren alde.** Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokiari edo herriko banku eta kutxetan zabalduz kontuetan sartu daitezke.

**Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua.** Sakanako Enpresariari Elkarteak langabeen eta lan bila dabilenentzako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

**3MBK kontu korrontea zabaldu du** Rural kutxan eta jendeak han egin dituzte ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

**Euskonews ekonomiko-ki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Galarurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren azterketa. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

**GoiEner Iruñean.** Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behe,

Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

**Nicoleren aldeko diru-bilketa.** Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

**Volkswageneko langileendako deia.** Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urteaz aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundazioak Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 1 0 0 2 1 7 3 8 7 0200346965

**Euskaldun bat euro bat.** Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxaizia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindik harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

**Gazteei jarritako isunak ordaintzeko.** Euskal preso eta iheslariak aldeko abenduaren 30 ekinemenean parte hartu zuten

gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela

**Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu,** urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigososefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com

## OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

**GALDUTAKOAK**  
**Urrezko eta zilarrezko kate bat galdu dut Altsasun.** Kristalak dauzka. Mesedez, opatu duenak hots egin dezala 651 811 230 telefonora.

**Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek dituzte:** diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburak.com

## IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik. **ORDAINTZEKO ATALAK:**

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

## ESKELA



## Eduardo Goikoetxea Kintana

Ez dut promesarik nahi, ez dut damurik nahi, maitasun keinu bat besterik ez.

Olaztiko zure kintoak

## ESKELA



## Eduardo Goikoetxea Kintana

(1957 / 2017)

Zauden lekuan zaudela, elkar ikusiko dugu.

Bere bikote Marianek, bere seme-alabak Kattik eta Xabierrek eta gainontzeko senideek eta lagunak eskertu nahi dituzte egun hauetan jasotako maitasun mezuak. Eskerrik asko.

Olazti

## ESKELA



## Eduardo Goikoetxea Kintana

2017ko urriaren 5ean hil zen, Iruñean

Goian bego

Olaztiko zure lagunak

## ESKELA



## Eduardo Goikoetxea Kintana

Gremblitx

Kuadrilaren partez agur eta ohore, Eduardo.

Zure kuadrila

## URTEURRENA



## Benigno Mendia Goikoetxea



II. urteurrena.

Zure familia eta lagunak

## JAIOTZAK

- Eider Lezea Rodriguez, irailaren 8an Altsasun
- Aritz Lopetegi Etxeberria, irailaren 28an Lakuntzan
- Elene Mazkarian Jimenez, urriaren 5ean Olaztin

## HERIOTZAK

- Teodora Urija Bengoetxea, urriaren 4an Altsasun
- Manuel Salazar Lozares, urriaren 8an Altsasun
- Josefa Zudaire Larraza, urriaren 8an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITZETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..

## ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 €, prezio hauek BEZa barne dute. ► Bazkideek % 10eko deskontua dute. ► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

40 aniversario **TANATORIOS IRACHE**

Tanatorioak: Altsasu – Iruztzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

- 948 19 70 70
- @Grupolrache
- Grupolrache
- www.tanatoriosirache.es


## Benito Lertxundik kontzertua emanen du Altsasun

Emanaldia larunbatean izanen da, 20:00etan, Burunda pilotalekuan.

### ALTSASU

Orioko bardoak estilo ugarirekin aberastutako folk musika eskaintzen 52 urte daramatza. Euskal Herriko geografian barnako biran, hurrengo geldialdia Altsasun egingen du. Biharko emanaldian Benito Lertxundik *Oroimenaren oraina* (2015, Elkar) du azken diskoa. Hura aurkezteko bira egin eta gero etorriko da Altsasura.

Burunda pilotalekuko emanaldian, ohikoan duen moduan, Benito Lertxundik oraindik argia ikusi gabeko kantuak ere



Benito Lertxundi. SAREA

aurkeztuko ditu, bere barne hausnarketak, Fernando Pessoa portugaldar idazlearen olerkiak edota Jorge Bucay argentinarren olerkiren batekin konposatutakoak. Eta, jakina, 17 diskoko diskografiako bere kanturik ezagunenek ere tokia izanen dute eskainiko duen errepertorioan.

Benito Lertxundi bere ohiko musikariez inguratuta igoko da Burunda pilotalekuko oholtzara: Juantxo Zeberio (piano eta sintetizadorea), Amaiur Cajaraville (baxua), David Gorospe (bateria), Angel Unzu (gitarra eta bouzukia), Gurutz Bikuña (gitarra), Xabier Zeberio (arrabita eta nyckelharpa), Pello Ramirez (eskusoinua eta bioloncella), Intza Unanue (koroak) eta Olatz Zugasti (harpa, tekladua eta ahotsa).

## Haurren gatazka gurasoena bihurtzen denean

Irurtzungo antzerki zikloaren bigarrena Jainko basatia izanen da, larunbatean, 20:00etan, kultur etxean.

### IRURTZUN

Yasmina Reza idazle, aktore, nobelagile eta dramaturgo frantziarraren komedia dramatikoa euskarara ekarri du Martin Agirrek. Antzezlan horretan bi bikote ezkondu elkartzen dira euren seme-alaben arteko liskarrik konpontzeko asmotan; izan ere, bikote baten semeak besteari eraso egin dio. Giza-legez, edukazio handiz abiatu den bilerak beste bide bat hartuko du.

Ane, (Aitziber Garmendia) Alexen emaztea da eta banku baten egiten du lan. Emakume

lasaia dirudi, baketsua, alkoholaren aparretan murgiltzen den arte. Alex (Mikel Losada) arrakasta handiko abokatu gaztea da, zintzoa, burlatia, zuzena eta mugikorrik izan ezean, galduta dabilen horietakoa.

Xanti (Andoni Agirregomez-korta) Veronikaren senarra da. Burdingilea, gizon lasaia eta emaztearen gonapean bizi dena, bileran lehertzen den arte.. Veronika (Tessa Andonegi) kultura handiko etxeoandre aurrerakoa da. Tragu pare bat hartuz gero itxuraldatu egiten da.

## Canoren liburuaz ariko dira Astelehen Zoriontsutan

Hilean behin elkartu, asteko aurreneko egunean, eta gai baten gainean euskaraz hizketatzea. Hori da Astelehen Zoriontsuak dinamikaren helburua 2016ko martxoaren 11n martxan jarri zenetik. Arakilen eta Irurtzunen egoitza ibiltaria duen ekimena da Astelehen Zoriontsuak. Eta hizpiderako gaia edo mamia irakurritako testuek (artikuluak,

erreportajeak, liburuak) edo ikusitako ikus-entzunezkoek (telebista saioak, filmak, sareetako bideoak) ematen diete.

Udako etenaren ondoren, ikasurteari ekiteko Harkaitz Cano idazlearen *Beti oporretan* (2015, Susa) liburua aukeratu dute. 14 narrazio jaso zituen liburu horretan Lasarteko idazleak. "Zorion une harrapaezinen inbentarioa" egin zuen Canok idazlan horiekin. Egitarretako elkartearen, astelehenean, 19:30ean dago hitzordua jarrita.

## Euskaraz kantari aritu nahi duten neska-mutilak

Nafarroako Haur eta Gaztetxoan Kantari Jaialdian izena emateko epea zabalik dute

### SAKANA

Urtero moduan Amaia Dominguez musika irakasleak 2018ko Nafarroako Haur eta Gaztetxoan Kantari Jaialdiak antolatu ditu. Haietan 6 eta 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoek parte hartu dezakete. Kantuan bakarka, binaka edo taldeka aritu daitezke. Kantu zaharrak, berriak, sortutakoak, moldaketak... denak onartzen dira, euskaraz badira. Gainera, ahots hutsez, karaoke moduan edo musikari laguntzarekin interpretatu daitezke kantua.

Lau jaialdi izanen direla jakinarazi du Dominguezek, haietako bat Sakanan. Ekimena despedituko duen jaialdi nagusia apirilean edo maiatza hasieran izanen da. Jaialdian parte hartu nahi dutenek otsailaren 2ra arteko epea dute izena emateko. Horretarako, madominguez@tafallaikastola.org e-postara idatzi beharko da.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARÍN

## Nola zaindu gure azala eguzkitan egon ondoren?

Orain emango ditudan gomendioak ez dira soilik azala egoera normalera bueltatzeko izanen, baizik eta lortutako kolore polit hori mantentzeko ere.

Hasierako urratsa beti esfoliazio egoki bat aurrera eramatea da, honen bidez azala era sakon batean garbituz eta bestelako zikinkeriak xahutuz. Modu horretan, zelulak berriro egiten dira, baita hilabete hotzetarako prestatu ere. Azal motaren arabera, esfoliantea era betekoa ala bestekoa izanen da eta maiztasuna ere bai. Larruazala oso sentikorra bada, berritza asteen behin egingo dugu, eta koipetsua bada, aldiz, bitan edo hirutan.

Neurririk gabeko hidratazioak pisu nabarmena dauka prozesu honetan, eguzkiak deshidratazio handia eragiten baitu. Beraz, oso garrantzitsua da azala bai barnetik bai kanpotik hidratatzea, hau urte osoan zehar ezin ederragoa edukitzeko.

Horretarako, gomendagarria izaten da Aloe Vera eta Aftersun bezalako produktuen erabilpena eta hauek guk geuk landatu ahal izatea itzela litzateke! Azken hori posible ez bada, horiek edozein botikatan eskura daitezke, erabateko purutasuna dutenak gainera.

C bitamina kontsumitzea ere komenigarria da, elikadura bidez zein gehigarri moduan. Hau antioxidatzaile bikaina da, kolagenoaren sintesian parte hartu, gure azalari elastikotasuna eman eta azal orbanak desagertzen lagunduz, azalari argitasuna eta distira ematen diona.

Egoskin berdea, hau izoztu eta krema hidratatzailea bota baino lehen aurpegian zehar

masajea ematen badugu (kotoi edo paper batekin), indartu eta piztuko dugu.

Eguzkiak azala dezente zigortzen du, baina askoz hobe ikusten gara kolore gehiagorekin, hau mantentzeko adituek egunero izokina jatea gomendatzen dute. Honek azala indarberrituko digu eta argitasuna eman.

Dutxa beroak alde batera utzi behar ditugu, hauek deshidratazio handia jasanarazten dute. Beraz, udazkenaren hasierako asteetan, gutxienez, ur hotzarekin dutxatu behar gara. Nabarmenago izanen da dutxa hotza hauek xaboiarekin egin beharrean, olioekin egiten baditugu.

SORPRESA!!! Azken gomendio hau oso goxoa da, lortu dugun kolore hori mantentzeko melanina estimulatzea ezinbestekoa da, eta horretarako badaude hainbat elikagai: azenarioa, tomatea, mertxika, meloia... Baina, badago bat denen gustukoa dena, pistatxoa (egunean 30g). Gogoratu: osasuntsua da, baina kaloria handikoa!!!



C bitamina antioxidatzailea. UTZITAKOIA





Sakanako artista desberdinek auzolanean erakusketa aretoaren muntai lanetan jardun ziren. GUAIXE

## Sakanako arte garaikidearen lagina

VI. Altsasuko Arte Azoka lortia kultur gunean izanen da ikusgai gaurtik hilaren 29ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara. 36 sortzailearen lanak ikusgai izanen dira. Gaur, 19:00etan, mustuko da.

### ALTSASU

Arte Bideren eskutik hemen da VI. Altsasuko Arte Azoka. Altsasuko kultur gunetik pasatzen dena arte garaikideko erakusketa opatuko du, pintura, eskultura, zeramika eta soinu instalazioa bere baitan biltzen duena. 36 sortzailearen lanak dira Arte Bideren erakusketan ikusgai daudenak, 25 sakandarrenak eta 11 sortzaile gonbidatuenak, ibarreko artisten ezagunak eta erakusketan parte hartzeko gonbidapena onartu dutenak.

Erakusketa gaur 19:00etan mustuko da eta Iortiarene ohiko ordutegian bisitatu daiteke. Baita igande goizan ere ikusgai izanen da, 10:00etatik 14:00etara. Sortzaileetako batzuk salmahaiak jarriko dituzte euren lanak saltzeko, jakina, bisitarien galderak erantzunen dituzte ere.

### Egileak

Aurtengo Arte Azokan honako sortzaile sakandarren lanak ikusteko aukera izanen da: Kol-

do Arnanz, Helena Santano, Carlos Rivera, Sagri Mauleon, Chuffi, Beatriz de la Vega, Maitte de Miguel, Jokin Kale, Lali Burgoa, Bidatz Razkin, Jule Kosta, Itziar Nazabal, Nagore Vilar, Maider Perkaz, Argiñe Berastegi, Itxaso Alzelai, Elur Oliz, Ana Goikoetxea, Angel Antonio Agirre, Rosa Arnanz, Patricia Paats, Manolita Thunders, Yolanda Mazkarian, Morakots, Lara Subterranean eta Jesus Mari Olmos. Azken biak dira Arte Azokan berriak.

Ohikoa denez, sortzaile sakandarren lanen ondoan gonbidatutako artistenak izanen dira ikusgai. Haiek Lizarra, Bilbo eta Frantziatik heldu dira Arte Azokako erakusketa aberastera. Honakoak dira Altsasun lana erakutsiko duten sortzaileak: Andrea Goñi, Klaus Ambruster, German de los Rios, Marijose Rekalde, Laura Siles, Guillermo Olmo, Ambre Klein, Laida Muruzabal, Juana Bonet, Silvia Nuin eta Tia Mildred.



## Eneko Lazkoz Martinez Bertso Txapelketa Nagusian

Tolosako biharkoa Beleixe Irratian entzungai izanen da, FM 107,3 edo guaix.eus bidez, Info 7ren berremisioa.

### ETXARRI ARANATZ

Eneko Lazkoz Martinez bertsolari etxarriarra, Nafarroako txapelkunordea, 17. Bertsolari Txapelketa Nagusiko saioan ariko da aurreneko bihar. Tolosako biharko final-laurdenean Lazkozekin batera Beñat Lizaso Alberdi, Etxahun Lekue Etxeberria, Jon Maia Soria, Madalen Arzallus Antia eta Xabat Gallettebeita Abaroa izanen dira bertsotan, Ion Zalduak gidatuta. Puntu gehien biltzen duenak Maule-Lexarreko finalaurrekorra pasako da.

Tolosakoa aurreneko errondako azken saioa da, beraz, bihar erabakiko da zein bertsolari pasako dira txapelketako hurrengo fasera. Final-laurdenetako saio bakoitzeko irabazleek txartela eskuratuta dute. Aurrera egingen duten gainontzeko 12 bertsolariak lortutako puntuen-



Eneko Lazkoz Martinez. ARTXIBOA

gatik egingen dute. Badirudi 662 puntutik gora lortzen duten bertsolariak pasatzeko aukerak izanen dituztela. Tolosako saiorako sarrera guztiak saldu dira. Baina finalaurreko eta finalerako sarrerak [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) web orrian salgai daude.

## Alegre-Illarregi bikotea Bertsoakabia sariketako finalera

Josu Sanjurjo eta Iñigo Gorostarzurekin berdindu ondoren, lortu zuten aurrera egitea

### ALTSASU

Nafarroako 16 eta 30 urte arteko bertsolarien trebagune izan nahi duen Bertsoakabi-Eugenio Arraiza Sariketa joan den ostegunean hasi zen Iruñean. Parte hartzen ari diren bi altsasuarrak, Ekain Alegre, Joanes Illarregirekin bikotea osatuz, eta Idoia Granizo, Mikel Lasarterekin, herenegun parte hartu zuten.

Herriko tabernan jokaturako kanporaketa 70 entzuleren aurrean eta haietako 5 izan ziren epaile. Lan puntuagarri guztien ondoren Alegre-Illarregi eta Josu Sanjurjo eta Iñigo Gorostarzurekin berdinketa izan zen eta bikoteek erdibana osatutako habanerak aurrenekoiei eman zien finalerako sailkapena.

Azken kanporaketan Saats Karasatorre eta Unai Artieda etxarriarrak Amaia Elizagoien-Xabat Illarregi eta Saioa



Ekain Alegre Iruñean. BERTSOZALE ELKARTEA

Alkaiza-Aitor Irastortza bikoteekin ariko dira, lastailaren 20an, ostiralean, 20:30ean, Baraingo gaztetxean. Hiru kanporaketetako irabazleek lastailaren 26ako den finalerako txartela eskuratuko dute.

+ [www.guaix.eus](http://www.guaix.eus)

# “Bioeraikuntza egungo bizimodu estresagarritik aldendu egiten da”

Espainiako estatuko lehen bioeraikuntza ikastaroa eskaini du Nafar Lansarek, Ultzama Fundazioarekin batera. Guztira 21 pertsonak hartu dute parte; tartean, Aritz Igoa etxarriarrak. Igeltseritzari, zurgintzari eta sistema pasiboari buruzko formazioa jaso dute ikasleek. Horri esker, 225 metro karratuko eraikin bat altxatu ahal izan dute. Esperientziarekin pozarren dago Igoa

**Eñaut Agirrebengoa Apaolaza**  
 ETXARRI ARANATZ

## 1 Zergatik erabaki zenuen ikastaro honetan parte hartzea?

Langabezia nengoen eta lagun batek komentatu zidan bioeraikuntza ikastaro bat egin behar zela. Interesgarria iruditu zitzaidan. Pixka bat ikasteko asmotan eman nuen izena.

## 2 Hortaz, hutsetik hasi zara.

Nik ingeniari tekniko ikasketak egin nituen, baina horretan ez naiz asko aritu. Beraz, bai, esan daiteke ia hutsetik hasi naizela. Aitari eraikuntzan udaren batean lagundu izan diot.

## 3 Zure ustez, zer du berezirik?

Eraikuntza arrunta egungo bizimodu estresagarria dago loturik. Dena presaka egin behar da. Bioeraikuntza joera horretatik aldendu egiten da. Egia esan, ez dakar ezer berririk. Garai bateko teknikak erabiltzen dira, egungoak baino jasangarriagoak direnak. Gauzak lasaiago eta garbiago egiten dira..

## 4 Nolako izan da zuretako ikastaroaren esperientzia?



Aritz Igoa. Bioeraikuntza baten aurrean. EÑAUT AGIRREBENGOA APAOLAZA

Oso positiboa. Talde oso polita elkartu gara. Bioeraikuntzan aurretik aritutako jendea zegoen, eta horrek asko ikasteko aukera ematen zizun. Gainera, maila handiko irakasleak izan di-

tugu. Estatuan izen handia duen jendea etorri zaigu irakastera.

## 5 Metodologia praktikoa izan da nagusiki, ezta?

Hori da. Teoria ere eman digute, baina garrantzia gehien teo-

ria hori praktikan jartzeari eman zaio. 225 metro karratuko eraikin bat egin behar izan dugu. Zimentuetatik goraino. Lan desberdinak izan ditugu. Lehenik zimentazioa, gero egitura osatzea, lastozko paretak egitea...

## 6 Ez da lan erraza izango halako eraikin bat altxatu behar izatea.

Zimentuak egiteak ez zeukan misterio handirik. Baina ondorengo lanek zailtasun gehiago izan dute. Egitura, lastozko paretak, sabai berdea... Beharrezko argibideak eman dizkigute gauza horiek guztiak egiteko. Asko ikasi dugu.

## 7 Maiatzetik irailera arte luzatu da ikastaroa, 628 ordu. Jada maisua zara bioeraikuntzan?

Kar-kar. Inondik inora. Nire lehen esperientzia izan da mundutxo horretan, eta maisua izateko eskarmentu gehiago pilatu beharko dut. Egia esan, asko interesatu zait, eta gogoia daukat sakontzeko eta gehiago ikasteko.

## 8 Guztira 21 ikasle aritu zarete, eta denek duzue ezaugarri bat komunean: langabezia zaudete.

Bai, ikasle guztiak antzeko egoeran geunden. Ikaskideekin oso gustura ibili naiz. Mundu guztia ikasteko asmoz joan da, prestutasun handiarekin. Eta irakasleak beti izan dira prest laguntzeko.

## 9 Zenbat irakasle izan dituzue?

Modulu bakoitzeko bi. Eta denera sei modulu izan ditugu. Baten bat modulu bat baino gehiagoan aritu da. Guztira, hamar bat. Eskarmentu eta prestakuntza handiko jendea da. Eta ikasleak prestatzeko gaitasun handia dutena.

## 10 Ikastaroko zuzendaria Iñaki Urkia izan da, Arbizuko karpina eraiki zuen arkitekto tafallarra. Asko ikasiko da halakoengandik

Nafarroan, bioeraikuntzaren oraindik ez da oso zabal. Erreferente nagusienetakoa da Iñaki. Gauzak egiteko eta ikusteko modu oso berezia dauka. Berak ez digu klaserik eman. Astean behin etorri da, errepaso bat egiteko, eta berarekin hizketan aritu izan gara. Akatsei soluzioak eman dizkigu.

## 11 Zer lan aukera izan ditzakezu bioeraikuntzarekin?

Ikastaroan bertan, zimentazioko irakasle batek berarekin lan egiteko eskaini zigun, bospasei hilabeteko lan bat atera zitzaio-lako. Ikastaroa oraindik bukatu gabe zegoen, eta denok genuen bukatzeko asmoa. Zabaltzen ari den alor bat da, eta aukerak izanen dira. Nire partetik, uste dut oraindik formazio gehiago behar dudala lanean hasi aurretik. Edo, bestela, formazio hori lanean bertan hartu beharko nuke. +www.guaixe.eus

## Bazkide zozketa

### LASTAILEKO SARIAK:

#### 1. SARIA:

**EKAINBERRI: 2 SARRERA**  
**ARTAZAKO KANPINA: %10EKO**  
**DESKONTUA**  
**LACTURALE: ESNEKI LOTEA**  
**GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN**  
**AQUARIUM: SARRERA BAT**

#### 2., 3. ETA 4. SARIA:

**ARTAZAKO KANPINA: %10EKO**  
**DESKONTUA**  
**LACTURALE: ESNEKI LOTEA**  
**GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN**  
**AQUARIUM: SARRERA BAT**



**CAMPING**  
**ARTAZA**

Ekain berri



**AQUARIUM**

